



LITERATURA  
LITERATURE


02

Estibalitz Ezkerra Vegas

BASQUE.



ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA



LITERATURA  
LITERATURE

Estibalitz Ezkerra Vegas

**BASQUE.**

01  
Euskara  
The Basque Language

02  
Literatura  
Literature

03  
Musika klasikoa  
Classical Music

04  
Euskal kantagintza: pop, rock, folk  
Basque Songwriting: Pop, Rock, Folk

05  
Artea  
Art

06  
Zinema  
Cinema

07  
Arkitektura eta diseinua  
Architecture and Design

08  
Euskal dantza  
Basque Dance

09  
Bertsolaritza  
*Bertsolaritza*

10  
Tradizioak  
Traditions

11  
Sukaldaritza  
Cuisine

12  
Antzerkia  
Theatre

Etxepare Euskal Institutuak sortutako bilduma honek hamabi kultura-adierazpide bildu ditu. Guztiak kate bakarraren katebegiak dira, hizkuntza berak, lurralte komunak eta denbora-mugarri berberekin zeharkatzen dituztelako. Kulturaren eskutik, euskararen lurraldean tradizioa eta abangoardia nola uztartu diren jasoko duzu. Kulturaren leihotik, bertakoaren eta kanpokoaren topalekua erakutsiko dizugu. Kulturaren taupadatik, nondik gatozen, non gauden eta nora goazen jakiteko aukera izango duzu. Liburu sorta hau abiapuntu bat da, zugan jakin-mina eragin eta euskal kultura sakonago ezagutzeko gogoa piztea du helburu.

This collection created by the Etxepare Basque Institute brings together twelve cultural disciplines, all of them intertwined as they share language, land and history. Hand in hand with our culture, we invite you to witness the fusion of tradition and innovation, the melding of local and foreign. In short, we invite you to learn where we come from, where we are now and where we're heading. This set of books is a launchpad intended to spark your curiosity.

## LITERATURA

### LITERATURE

Estibalitz Ezkerra Vegas

10	<b>Euskal edo euskarazko literatura</b>	<b>Literature in Euskara</b>
10	Narratiba	Narrative
42	Ipuina	The Short Story
46	Poesia	Poetry
60	<b>Beste hizkuntzetan egindako literatura</b>	<b>Basque Literature in Other Languages</b>
72	<b>Bibliografia</b>	<b>Bibliography</b>



Nola lortu du Mendebareko Europako berezko hizkuntzen artean indoeuroparra ez den bakarrak bere lekua hartzea XXI. mendean? Zertan datza euskal kultura gaur egun eta zertan bereizten da besteengandik? Zer presentzia merezi du nazioartean?

Liburu hauen bidez, Etxepare Euskal Institutuak erantzun batzuk proposatu nahi ditu, beste kultura eta identitate batzuei eskua luzatzeko asmoz. Elkar ezagutzea baita elkar estimatzeko eta ulertzeko modu bakarra. Ongi etorri.

How has the only indigenous language of Western Europe that is not of Indo-European origin achieved its own place in the 21st century? What is Basque culture and what sets it apart from others? What international presence does it deserve?


Through the books that make up this collection, the Etxepare Basque Institute would like to offer a series of responses to reach out to other cultures and identities. The better we know each other, the more we appreciate each other. Ongi etorri.

Historia labur honen helburua XX. eta XXI. mendeetako Euskal Herriko literaturaren garapenari begira esanguratsuak izan diren gertakariak eta egileak aipatzea da. Euskal Herriko zein euskal jatorriko idazleek beren hizkuntzeta (euskarra, gaztelania, frantsesa eta ingelesa) ekoitziriko literaturari deritzogu Euskal Herriko literatura. Lehen atalean, euskarazko ekoizpena izango dugu hizpide; ondoren, gainerako hizkuntzeta egindako literaturari helduko diogu.

## Euskal edo euskarazko literatura

### NARRATIBA

Hastapenetan eliz munduari eta hezkuntza erlijioitsuari loturik egon bazeen ere, XIX. mendetik aurrera euskarazko literaturak bestelako norabidea hartu zuen nobela bezalako generoei ongi etorria emanez (Mitxelena, 1988: 141). Aipatu mendean bost nobelek bakarrik argia ikusi bazuten ere (Lasagabaster, 1981: 348), erronka handia izan zen bestelako joerei atea ireki zielako. Dena den, XX. mende erdialdera arte itxaron beharko dugu euskal literatura jarduera autonomo izan dadin euskal gizartean.



Euskal nobelaren aurrekarien artean Juan Antonio Mogelen *Peru Abarka* dugu, 1802rako osatua baina 1880ean argitaratua. *Peru Abarka* beraren eta Maisu Juanen arteko solasaldia du oinarri, eta helburu didaktikoarekin idatzita dago: euskotar ilustratuak euskaren balioaz konbentzitu nahi ditu lanak. Aipatu beharreko beste hiru lan dira Jean Baptiste Elizanbururen *Piarres Adame* (1888), Resurreccion Maria Azkueren *Bein da betiko* (1893), zein Bizenta Mogelen *Ipuin onak* (1804), emakume batek argitaraturiko lehen lana, Esoporen fabulen moldaketa.

XIX. mendeko azken herenean, Bigarren Gerra Karlistaren ostean, Antonio Cánovas del Castillo foruak ukatu zituen.

Euskararen oraina eta geroa foruei lotu zituzten hainbatek, haien artean Juan Ignazio Iztuetak, zeinak *Guipuzcoaco provinciare condaira edo historia* (1847) adierazi zuen: «Euscara ill esquero Fueroac ez dira bicico; banan Euscara bici bida, Fueroac piztuko dira» (Madariaga, 2006:159). Zentzu horretan, ez da harritzekoa 1876an euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimendua, *Pizkundea* bezala ezaguna, agertu izana, Kataluniako Renaixença zein Galiziako Rexurdimento mugimenduen pareko. Alemaniako filosofo idealisten espíritu errromantikoaren ildotik euskaraz idatzitako literatura euskal arimaren islatzat jotzen hasi ziren, lehenengoaren helburua zelarik bigarrena babestea eta sustatzea. Horren harira, zenbait literatur ekitaldi antolatzen hasi ziren,

The goal of this brief history is to highlight the main events and most important names associated with the development of Basque literature through the twentieth and twenty-first centuries. We take Basque literature to mean the literature created by Basque authors or authors with Basque roots in different languages: Basque, Spanish, French and English. First we will look at literary production in Euskara (Basque) and then we will address literature written in other languages.

## Literature in Euskara

### NARRATIVE

While the origins of Basque literature in Euskara were linked to the ecclesiastical world and religious education, from the nineteenth century on it began to change with the introduction of new genres such as the novel (Mitxelena, 1988: 141). Although only five novels were written in the language during that century (Lasagabaster, 1981: 348), this was still a ground-breaking development because it paved the way for other tendencies to emerge. Still, literature in Euskara did not become an autonomous activity until the mid-twentieth century.

One of the forerunners of the novel in Euskara was *Peru Abarka* by Juan Antonio Mogel, completed in 1802 yet not published until 1880. This work is based on a dialogue between Peru Abarka himself and Maisu Juan, and is written with a clear goal in mind: to convince enlightened Basque scholars of the value of Euskara. Three other works should also be mentioned: *Piarres Adame* (1888) by Jean Baptiste Elizamburu, *Bein da betiko* (1893), by Resurrección María de Azkue, together with *Ipuin onak* (1804) by Bizenta Mogel, an adaptation of Aesop's fables and the first work in Euskara published by a woman.


During the last third of the nineteenth century, following the Second Carlist War (1873-1876), the Spanish Prime Minister Antonio Cánovas del Castillo abolished the *fueros* (a body of law guaranteeing regional rights and privileges). Prior to this, numerous authors had connected the present and future of Euskara to the *fueros*. One of them, Juan Ignazio Iztueta, declared in his *Guipuzcoaco provinciare condaira edo historia* (1847) that, «Euscara ill esquero Fueroac ez dira bicico; banan Euscara bici bida, Fueroac piztuko dira» (if Euskara dies, the *fueros* will not live; but if Euskara lives, the *fueros* will be resurrected) (Madariaga, 2006: 159). In this regard, it is hardly surprising that in 1876 a pro-Euskara and Basque culture movement known as *Pizkundea* emerged, in a similar way to that of the Catalan Renaixença and the Galician Rexurdimento. Following the Romantic spirit of the German idealists, literature written in



besteak beste *Euskal Jaiak* delakoak, 1851ean Antoine d'Abbadie Iparraldean antolaturiko eta 1879an Hegoaldean izandako Lore Jokoak jarraipena. Era berean, garai horretan denetariko argitalpenek ikusi zuten argia, euskarazko hezkuntza instituzionalizatzeko urratsak egin ziren, Bizkaiko Foru Aldundiak Euskal Hizkuntzako Katedra sortu zuen (1888), eta lehen ikastolak ireki zituzten.

Euskal Jaien babesean, historia eta elezaharra uztartzen zituen euskarazko narratiba garatu zen. Walter Scott eskoziarraren nobelei jarraituz, Francisco Navarro Villosladak, Juan Venancio Araquistainek, José María Goizuetak zein Vicente Aranak gaztelaniaz idatziriko nobela historiko-erromantikoa eredu zuen narratiba horrek. Testuinguru horretan argitaratu zuten atalka, 1898tik aurrera, euskarazko lehen nobela: Domingo Agirreren *Auñemendiko lorea*. Adalbaldo dukearen emazte den Riktrudis emakume kristauaren historia azaltzen du lanak, kristaua ez den buruzagi euskaldun bat, Portun, atzetik duena.

XIX. mendearren azken hamarkadan euskal politikagintzan eragin handia izango zuen planteamendua agertu zen: euskal nazionalismoa, mugimendu foralistaren lekukoa hartuko zuena. Nazionalismoaren planteamenduetan eragin handia izan zuten XX. mende hasieran jazotako aldaketek eta gertaerek: industrializazioak ekarritako -Bizkaian eta Gipuzkoan batez ere- populazioaren hazkundeak, Partido Socialista Obrero Español-aren agerpenak Bilbon (1879). Alde batetik, industrializazio azkarra eragindako ekonomiaren egoera ezin hobeak ondorio baikorra izan zuen euskal kulturaren hainbat arlotan, hala nola euskal filologian (Ramón María Azkuek eta Julio Urquijok



rol garrantzitsua jokatu zuten arlo honetan; Urquijok *Revista Internacional de Estudios Vascos* sortu zuen 1907an), musikan, arkeologian zein etnografian (Telesforo Aranzadi, José Miguel Barandiaran). Euskal ikasketak balioztatu zitzakeen unibertsitaterik ez zegoen, ordea. Behar horri erantzuteko asmoz Euskal Ikasketen Lehen Kongresua antolatu zuten, baita Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia sortu ere 1918an. Bestetik, egoera ekonomiko beraren ondorioz euskararen eragin esparrua murritzut joan zen pixkanaka landa-eremuaren *berezko ezaugarri* bihurtzeraino, hirietan eta industriaguneetan gaztelania nagusituz zihoan bitartean. Zenbait intelektualek, Miguel Unamunok kasu, faktore sozioekonomikoak aintzat hartu ez eta euskararen beherakada azaltzeko orduan, hura mundu modernoaren beharrei aurre egiteko gai ez zela argudiatu zuten. Nazionalismoak ere industrializazioak eragindako polarizazioari (landa-eremua / hiria, euskara / erdara, tradizioa/modernitatea) etekin aterako zion bere modura. Domingo Agirreren *Kresala* (1906) eta *Garoa* (1912) nobela kostunbristek ezin hobeto islatzen dute nazionalismoaren diskurtsoa, euskal bizimodu jatorraren sinbolo diren kokaguneei (itsasoa eta baseria, hurrenez hurren) kutsagarritzat jotzen diren elementuak (hiria) kontrajartzen zaizkien aldetik. Ildo beretik jo zuten orduko hainbat egileren lanek: José Manuel Etxitaren *Josecho* (1909) eta *Jayoterri maitia* (1910); Ramon María Azkueren *Ardi galdua* (1918); Jean

1. Domingo Agirre.



Euskara came to be considered as representative of the Basque soul, and its goal was to protect and promote the language. For that reason, different literary acts were organised, such as the so-called *Euskal Jaiak* (Basque Festivals), taking the baton from the *Lore Jokoak* (literally, Floral Games), which were held for the first time in the Northern Basque Country in 1851, organised by Antoine d'Abbadie, and the Southern Basque Country in 1879. Meanwhile, at the same time all kinds of publications emerged, steps were taken towards the institutionalisation of schooling in Euskara, the provincial council of Biscay created the first Chair in the Basque Language (1888), and the first *ikastolas* (schools where instruction is in Euskara) opened their doors.

As part of the *Lore Jokoak*, a literature in Euskara began to emerge which combined history and legend. This literature took as a reference point literature in Spanish by authors like Francisco Navarro Villoslada, Juan Venancio Araquistain, José María Goizueta and Vicente de Arana, which in turn had been inspired by the romantic historical novels written by the Scottish author Walter Scott, amongst others. At this moment, specifically after 1898, the first novel in Euskara was published in serial form: *Auñemendiko lorea* by Domingo Agirre. This work centred on the tale of Rictrude, the Christian wife of Duke Adalbald, who was wooed by the non-Christian Basque chief Portun.

At the close of the nineteenth century a concept emerged that would have a major influence in transforming Basque politics: Basque nationalism, which took over the baton from foralism (the movement to seek reinstatement of the *fueros*). The concept of Basque nationalism was influenced greatly by several events which took place during the early twentieth century: industrialisation (mainly in Biscay and Gipuzkoa), population growth and the founding of the Partido Socialista Obrero Español (PSOE, Spanish Socialist Workers' Party) in Bilbao (1879). On the one hand, the positive impact of rapid industrialisation on the Basque economy resulted in a flourishing of Basque culture in many aspects: for example, philology (Ramón María

Barbierren *Piarres* (1926-29); Pierre Lhanderen *Mirentxu* (1914) eta *Yolanda* (1921), besteak beste. Aipatzekoak dira orduko zenbait emakumek, hala nola Rosario Artolak, Tene Mujikak, Julene Azpeitiak, Katalina Eleizegik eta Sorne Unzueta euskal literaturari egindako ekarpena.

36ko gerrak eragin suntsigarria izan zuen euskal letretan. Gerra garaian nobela bakarrak ikusi zuen argia: Tomás Agirre Barrensonoren *Uztaro* (1937), gai aldetik hura ere kostunbrista. Domingo Arrutiren *Loretxo* (1937), atalka argitaratua euskarazko lehen egunkarian, *Eguna* (1937), amaitu gabe geratu zen. Gatazkan bizia galdu ez zutenenetik askok erbestera jo zuten eta desterruan, hain zuzen, euskal literaturak bultzada handia jaso zuen. Penintsulan, errepressoaren ondorioz, zaila zen euskaraz ezer argitaratzea. Erbesteko eragileen artean nabarmentzekoak dira Ekin argitaletxea, 1942an Buenos Airesen sortua, eta *Euzko Gogoa* aldizkaria (1950-1955 / 1956-1959), Jokin Zaitegik zuzendua Guatemalatik, gerora Miarritzera aldatu zena. Ekinen bitartez ikusi zuten argia guda osteko lehen nobelek, Jon Andoni Irazustaren *Joanixio* (1946) eta *Bizia garratza da* (1950), biak ala biak Espaniako gerraren testuinguruari kokatuta. Irazustaren nobelak XX. mende hasierako joeraren jarraipen dira, hots, ideologia esenzialistaren isla dira, tradizioaren eta erlijioaren aldekoak. Maria Jose Olaziregi aburuz, askozaz berritzaleagoa da Joseba Eizagirreren *Ekaitzpean* (1948), karlisten (nazionalen aldeko) eta nazionalisten (Errepublikaren aldeko) artean zeuden kontraesanak azaltzen dituen aldetik. Aipatzeko da ere Sebastian Salaberriaren *Neronek tirako nizkin* (1964), gerra lehen pertsonan kontatzen duen lan autobiografikoa.

Martin Ugaldek inork baino hobeto azaldu zuen errepresso politikoak eta deserriak euskal herritar askorengan izan zuen eragin suntsigarria. Egileak berak hiru erbestealdiri aurre egin zien. Ugalderen lanen artean

2. Julene Azpeitia.




2

2. Julene Azpeitia.

Azkue and Julio Urquijo played an important role in this, with Urquijo founding the *Revista Internacional de Estudios Vascos* (RIEV, International Journal of Basque Studies) in 1907, music, archaeology and ethnography (Telesforo Aranzadi, José Miguel Barandiaran). However, there was no university to accredit Basque Studies. The organisation of the First Basque Studies Conference was precisely a response to that need, which was followed by the creation of Eusko Ikaskuntza (the Basque Studies Society) and Euskaltzaindia (the Royal Academy of the Basque Language) in 1918. On the other hand, the economic situation itself contributed to Euskara losing ground in regard to Spanish, so that in time it became associated with being a "more typical" feature of rural areas. Meanwhile, in urban and industrialised areas Spanish became the dominant language. Some intellectuals, like Miguel Unamuno, ignored the economic factors which had caused the decline in use of Euskara and even argued that it was a language unsuited to the demands of the modern world. Nationalism itself understood how to make the most of the polarisation created by industrialisation (rural areas vs. urban areas, Basque vs. Spanish, tradition vs. modernity). The *costumbrista* novels of Domingo Agirre, *Kresala* (1906) and *Garoa* (1912), are good examples of the nationalist discourse at that time: with spaces symbolic of a "pure" Basque way of life (the sea and the farm, respectively) contrasted against spaces considered pernicious and contaminated (the city). Works by other authors during the same period reveal the same characteristics: *Josecho* (1909) and *Jayoterri maittia* (1910) by José Manuel Etxeita; *Ardi galdua* (1918) by Ramón María Azkue; *Piarres* (1926-29) by Jean Barbier; and *Mirentxu* (1914) and *Yolanda* (1921) by Pierre Lhander. Likewise, the contribution of women authors to the literature of the era also stands out in works by Rosario Artola, Tene Mujika, Julene Azpeitia, Katalina Eleizegi and Sorne Unzueta.

The Spanish Civil War (1936-1939) had a devastating effect on Basque letters. Just one novel was published during the conflict: *Uztaro* (1937) by Tomás Agirre Barrenso, a *costumbrista* work. *Loretxo* (1937), by Domingo Arruti, published in serial form in *Eguna* (the first newspaper in Euskara in the Basque Country), remained unfinished. Many survivors of the war went into exile and it was in exile that literature in Euskara received a significant boost. Meanwhile, in the peninsula, it was difficult to publish in Euskara because of state repression. The important agents in exile included the Ekin publishing house (founded in 1942 in Buenos Aires) and the journal *Euzko Gogoa* (1950-1955 / 1956-1959), edited by Jokin Zaitegi who was based in Guatemala (and who later moved to Biarritz in Labourd).

The first novels of the post-Spanish Civil War era were published by Ekin: *Joanixio* (1946) and *Bizia garratza da* (1950). Both were written by Jon Andoni Irazusta and both were based on the war. Irazusta's novels reflect the prevalent feelings of the early twentieth century. In other words, they reflect an essentialist ideology which emphasised tradition and a religious sentiment. For Maria Jose Olaziregi, *Ekaitzpean* (1948) by Jose Eizagirre is a more ground-breaking work to the extent that it shows the contradictions on both sides: that of the Carlists (a traditionalist faction which supported the military insurgents against the Spanish Republic) and the nationalists (who supported the Republic). One should also mention *Neronek tirako nizkin* (1964)



nabarmenzeko da *Iltzalleak* (1961) 36ko gerraren eta gerraostearen gogortasuna azaltzen duen ipuin bilduma, eta *Itzulera baten istorioa* (1989) zein *Pedrotxo* (1993) nobelak. Lehenengoak erbestean den euskal familia baten Euskal Herriko itzultzeko ahalegin antzuak azaltzen ditu; bigarrenak, gerrak ekarri zuen giza hondamena eta gerraosteko errepresio frankista ditu aipagai.

Gerraostearen Hegaoaldean argitaratu zuten lehen nobela Jon Etxaideren *Alos-Torrea* (1950) izan zen, Juan Venancio Aranquistainen «Gau-illa» elezaharrean oinarritua. Etxaiderenak dira ere *Joanak joan* (1955), Pierre Topet Echahun poeta errromantikoaren bizitzan oinarritua, eta *Gorrotoa lege* (1964), Erdi Aroan gertaturiko bandoen arteko gerretan oinarritua. Bestetik, Jose Antonio Loidik euskarazko lehen polizia-nobela idatzi zuen, *Amabost egun Urgainen* (1955).

1950eko hamarkadan euskal literatura jarduera autonomo bihurtu zen Euskal Herriko bizimodu soziokulturalean, «lege, funtzionamendu mekanismo eta helburu propioekin, bestelako jarduera linguistiko edo kulturaletik aparte» (Lasagabaster 1985: 427). Euskal literaturak Europaren une horretan nagusi ziren literatur mugimenduekin bat egin zuen, eta bat-egite horren adierazgarri izan zen itzulpenek literatur sistemana piztu zuten interesa. Aipatu hamarkadan euskal nobelak kostumbrismotik joera existentzialetara jauzi egin zuen Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*-ren *Leturiariaren egunkari ezkutua* (1957) lanaren eskuak. *La Nausée-ko* (1938) Antoine Roquentinen antzeria, Leturiak, nobelako heroi gatazkatsuak, giza existentziaren zentzugabekeriaz idatziko du bere egunerokoan, eta existentialismoaren ardatz nagusien gainean –bakardadea, porrota, heriotza, erabakiteak eragiten duen ezinegona-gogoeta egingo du. Txillardegiren hurrengo nobelek ere, *Peru Leartzako* (1960) eta *Elsa Scheelen* (1969), existentialismoaren bidetik jo zuten.

Txillardegiren belaunaldi berekoa dugu Jon Mirande, eta hark bezala modernitatearen nondik norakoak azaldu zituen bere obra poetikoan zein bere narratiban, hala nola *Haur besoetakoa* (1970) nobela psikologikoan, 1959an idatzia eta 1970ean argitaratua, zein bera hil ostean kaleratu zuten *Gauaz parke batean* (1984) bildumako narrazioetan. *Haur besoetakoa* nobelaren gaiak, gizon heldu baten eta bere haur besoetako gaztearen arteko harremanak, Vladimir Nabokoven Lolita dakar gogora. Paradoxikoki, Mirandek ez zuen errusiarraren nobela irakurria Haur besoetakoa idatzi zuenean. Eduardo Gil Berak nobelaren gaztelaniazko itzulpenari idatzitako hitzaurrean esaten duen bezala,



3. Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*. Durangoko Azoka, 2007.

3. Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardegi*. Durango Book and Record Fair (Biscay), 2007.



by Sebastián Salaberria, an autobiographical work which narrates the war in the first person.

Martin Ugalde understood better than anyone how to reflect the devastating effects that political repression and exile entailed for many Basques. The author himself had to go through three exiles. Among Ugalde's works, one should mention *Iltzalleak* (1961), which reflects the tough nature of the civil war and the post-war era, together with the novels *Itzulera baten istorioa* (1989) and *Pedrotxo* (1993). The former demonstrates the futile efforts of a Basque family to return to the Basque Country; the latter analyses the human destruction caused by the war and the Franco regime's repression in the post-war era.

Following the civil war, the first novel published in the Southern Basque Country was *Alos-Torrea* (1950) by Jon Etxaide, based on the legend "Gau-illa" by Juan Venancio Aranquistain. The same author was also responsible for *Joanak joan* (1955), about the life of romantic poet Pierre Topet Echahun, and *Gorrotoa lege* (1964), on the war of the factions (clans) during the Middle Ages in the Southern Basque Country. Meanwhile, Jose Antonio Loidi wrote the first detective novel in Euskara, *Amabost egun Urgainen* (1955) [Fifteen Days in Urgain, 2014].

In the 1950s Basque literature became an autonomous activity within the socio-cultural life of the Basque Country "with its own laws, functioning mechanisms and objectives, as opposed to other linguistic and cultural activities" (Lasagabaster, 1985: 427). Basque literature took note of the main European literary movements of the time, and as a result, translation into Euskara of works written in other languages raised much interest in the Basque literary system. During this decade, as a result of *Leturiariaren egunkari ezkutua* (1957) by Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardegi*, the Basque novel left *costumbrismo* behind to embrace existentialism. In the same way as Antoine Roquentin in *La Nausée* (1938), Leturia, the conflictive hero of the novel, writes in his diary about the absurdity of human existence. He also

Mirandek Teokrito zein Virgilioren garaikit Mendebaldeko tradizioaren parte zen literatur motibo bati besterik ez zion heldu.

Nazioarteari begira, 1960ko hamarkadak giza mugimendu berrien agerpena eta Hirugarren Munduko herrialdeetatik bultzaturiko iraultza ereduen hedapena ekarri zuen. Hego Euskal Herrian, nazionalismoaren barruan EAJk eta ETAk lortu zuten nagusitasuna aipatu beharko genuke (Chueca 2000: 398). Bestetik, herrialdearen hazkunde ekonomikoa eta industriala indartuz joan zen, eta horrek kultur proposamen berriak martxan jartzea ahalbidetu zuen. Proposamenek kultura eta arte modernoa bultzatzea zuten helburu, eta haien sustatzaileetako bi izan ziren Gabriel Aresti poeta eta Jorge Oteiza eskultorea. Oteizak Gaur, Danok, Emen eta Orain taldeetan bildutako beste artistekin batera, Euskal Eskola sortu zuen 1966an. Aresti eta Oteizarekin batera, aipatzeko da Koldo Mitxelena hizkuntzalaria. Mitxelenak Euskaltzaindiak bultzaturiko euskara batua sortzearen prozesua gidatu zuen. Bestetik, hamarkada berean, lehen Euskal Liburu Azoka antolatu zuten Durangon (1965), eta euskal kantu modernoa bultzatu zuen Ez Dok Amairu (1965-1972) taldeak orduan hasi zuen bere ibilbidea.

Literaturaren alorrean, euskarazko liburuen ekoizpenak bultzada handia jaso zuen argitaletxe agertu berrien eskuak: Gordailu (1969), Lur (1969), Etor (1970), Iker (1972), Gero (1973), Elkar (1973). Nobelen kopurua handitu egin zen (aurreko hamarkadan argitaratutakoaren halako bi), eta lehen aldiz euskarazko nobelak garaiko irakurleen aurreikuspenekin bat egin zuen. Urte horietan *nobela soziala* agertu zen, bestetik beste Xabier Gereñok, Txomin Peillenek eta Xabier Amurizak landutakoa.

Nobela sozialarekin batera, bestelako nobela eredu bat agertu zen euskal letren panoraman, alegorikotzat jo genezakeen nobela mota, orduko zentsurari iskin egin nahi ziona. Nobela mota horrek Hego Amerikako errealsismo magikoaren ekarpenak bere egin zituen. Orduko da Anjel Lertxundiren lehen lana, *Hunik arrats artean* (1970) ipuin bilduma. Bertan lehen aldiz agertu zen Urturi herria (Euskal Herriaren sinbolo), *Ajea du Urturik* (1971) nobelaren kokagune izango zena. Azken horretan Urturin jazotako uholdeak herritarrengan sorturiko ezinezgora azaltzen zaigu. Behin eta berriro agertzen den armiarma sarearen irudia diktadura garaian euskal herritarrek bizi zuten jazarpenaren adierazgarri da. Errealismo magikoaren oihartzuna nabarmena da ere Mikel Zarateren *Haurgintza minetan* (1973) nobela alegorikoan zein Joan Mari Irigoienen *Oilarren promesa*



4. Durangoko Azoka, 2015.

5. Ez Dok Amairuko zenbait kide Atahualpa Yúpanqui (ezkerretik hirugarrena) eta Paco Ibáñez (zortzigarrena) kantariekin: Joxean Artze (ezkerretik bigarrena), Benito Lertxundi (laugarrena), Mikel Laboa (seigarrena), Jose Angel Irigaray (zazpigarrena), Xabier Lete (makurtuta ezkerretik lehenengoa) eta Lourdes Iriondo. 1960ko hamarkada.



reflects on the main themes of existentialism: loneliness, failure, death, and the fear resulting from taking decisions. He also speculates on the existence of God, something Leturia does not deny. Txillardegi's next novels, *Peru Leartzako* (1960) and *Elsa Scheelen* (1969), also relied on existentialism.

Jon Mirande belonged to the same generation as Txillardegi, and in a similar way to him analysed modernity's failings both in his poetic and narrative work. Examples of the latter are the psychological novel *Haur besoetakoa* (1970), which was written in 1959 yet not published for a decade, and the posthumously published book of short stories *Gauaz parke batean* (1984). The main theme of *Haur besoetakoa*, the relationship between an adult man and his young goddaughter, brings to mind Vladimir Nabokov's novel *Lolita*. Paradoxically, Mirande had not read the Russian author's novel when he wrote *Haur besoetakoa*. According to Eduardo Gil Bera in the prologue to the Spanish translation of the novel, Mirande simply made use of a motif which had been part of the Western tradition since the time of Theocritus and Virgil.

At an international level the 1960s witnessed the emergence of new social and revolutionary movements originating in so-called Third World countries. In the Southern Basque Country, the Partido Nacionalista Vasco-Eusko Alderdi Jeltzalea (PNV-EAJ, Basque Nationalist Party) and ETA remained popular among the nationalist community (Chueca, 2000: 398). Meanwhile, continued industrial and economic growth allowed for new cultural initiatives to come to the fore. These had as a basic goal promoting modern Basque culture and art. Two of the most relevant figures of this era were the poet from Bilbao, Gabriel Aresti and the sculptor Jorge Oteiza. Oteiza, together with other artists belonging to the groups Gaur, Danok, Emen and Orain, founded the Basque School in 1966. Another figure worth pointing out is the linguist Koldo Mitxelena. Mitxelena led the process, promoted by Euskaltzaindia, to create Euskara Batua (Unified or Standard Basque). One should also remember that it was during this time, among other events, that the first Basque Book Fair in Durango (Biscay) was held (1965). Similarly, the group *Ez Dok Amairu* (1965-1972), the main impulse behind the emergence of the "new song" in Basque, emerged during this time.

As regards literature, production of books in Euskara received a major boost thanks to the efforts of new publishing houses: *Gordailu* (1969),

(1976) lanean. Biek ala biek Hego Euskal Herriak bizi zuen errepresio politikoa salatzen dute.

1969an argitaraturiko Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* nobelak eredu esperimentalistak ekarri zituen euskal literaturara. Tartekatzen doazen bi plano narratibo independentetan antolatua, *Egunero hasten delakok* abortatu nahi duen ikasle gazte baten istorioa zein tren geltoki batean eta telefono zentral batean dauden pertsonaia batzuen artean gertatzen den elkarrizketa azaltzen ditu. Saizarbitoriaaren bigarren nobela ere, *100 metro* (1976), hainbat planotan antolatuta dago, baina kasu honetan zinema teknikak jarraitzen ditu egileak gertaerak azaltzeko. Hari nagusiak ETAko kide batek Donostiako Konstituzio plazan poliziak tiroz hil aurretik egindako azken ehun metroak azaltzen ditu. Nobelak Francoren diktaduraren azken urteetako giroa islatzen du, errepresio handiko garaia hura. Nouveau Roman-aren teknikei jarraituz osatu zuen Saizarbitoria bere hirugarren nobela, *Ene Jesus* (1976).

Saizarbitoriarekin batera, Bernardo Atxaga eta Koldo Izagirre eredu narratibo esperimentalen sustatzaile handiak izan ziren. Atxagak eta Izagirrek *Panpina ustela* aldizkaria argitaratu zuten 1975ean. Bertan azaltzen zen manifestuan, «Ez dezagula konposturarik gal, halere», egileek euskal literaturaren egoera kritikatu eta errortiko berrikuntza prozesua proposatzen zuten. Aldaketa horren adibide dira Izagirren *Zergatik bai* (1976) eta Atxagaren *Ziutateaz* (1976) testu neoabangoardistak. Lanok 1970eko hamarkadako esperimentalismoen garaia itxi egin zuten.


1978an, Espainiako Konstituzioa onartua izan ostean, euskarak gaztelaniarekin batera ko-ofizialtasun egoera lortu zuen penintsulako bi autonomia-erkidegoetan, hots, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean. Horrek hezkuntza eredu elebidunak eskaintzea zein euskarazko aritalpenei zuzenduriko dirulaguntza deialdiak zabaltzea posible egin zuen. Bestetik, Euskal Filologia unibertsitate ikasketak sortu zituzten 1981ean, literatura-ikerketa akademikoari bultzada



6

**6.** Ramon Saizarbitoria.

**7.** Anjel Lertxundi eta Inazio Mujika Iraola Gutun Zuria jaialdian, Bilbao, 2012an.



*Lur* (1969), *Etor* (1970), *Iker* (1972), *Gero* (1973) and *Elkar* (1973). Within this production, there was a notable number of novels (twice the amount was published in comparison to the previous decade) and for the first time the novel in Euskara met the expectations of readers. It was during this time that the first social novels in Euskara were published by authors such as Xabier Gereño, Txomin Peillen and Xabier Amuriza.


Together with the social novel, another genre appeared on the Basque literary scene. This was a kind of novel one might term allegorical, in an attempt to evade censorship, and that embraced the main features of Latin American magic realism. It was during this time that the first work by Anjel Lertxundi was published, a book of short stories *Hunik arrats artean* (1970). Here, the allegorical town of Urtubi (a clear symbol of the Basque Country) appeared for the first time, the setting for the novel *Ajea du Urturik* (1971) by the same author. *Ajea du Urturik* recounts the suffering of the town's inhabitants following some floods. The recurring image of a spider's web appears throughout the book as a symbol of the repression being suffered by Basques at the time. The influence of magic realism is also evident in the allegorical novel *Haurgintza minetan* (1973) by Mikel Zarate and in *Oilarraren promesa* (1976) by Joan Mari Irigoien. Both works denounced the political repression in the Southern Basque Country.

*Egunero hasten delako* by Ramon Saizarbitoria, published in 1969, introduced experimentalist models into the Basque novel. Organised along two independent alternating narrative levels, the novel tells the story of a young student who wants to have an abortion and the conversation that takes place between a train station and telephone exchange between a strange person and one or several anonymous interlocutors. In his second novel, *100 metro* (1976) [100 meter, 1985], the author also resorts to different narrative levels although in this work the use of cinematographic techniques is more evident when relating the events. The main story narrates the final one hundred metres of an ETA activist before being shot dead in Constitution Square in San Sebastián. The novel describes the

handia emanez. 1980ko hamarkadan bertan sortu zituzten Euskal Idazleen Elkartea (1982), Euskal Itzultzale, Zuzentzaile eta Interpreteneen Elkartea (1987) zein euskarazko haur- eta gazte-literatura sustatzen duen Galtzagorri Elkartea (1990).

Garai honetan euskal literaturak lorturiko autonomiaren adibiderik onena da Jose Irazu Garmendia, goitizenetan Bernardo Atxaga. Atxaga euskal idazlerik sarituena eta itzulienea izan ez ezik, idazketara profesionalki dedikatzen den egile bakarrenetarikoa dugu. «Camilo Lizardi erretore jaunaren etxearen aurkitutako gutunaren azalpena» (1982) narrazioan azalduriko Obaba geografia imajinarioak toki garrantzitsua betetzen du Atxagaren obran. Obabak Bizkaiko seaska kantu batean du jatorria, eta espazio horretan jazotzen dira *Sugeak txoriari begiratzen dionean* (1984), *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* (1984) eta *Bi anai* (1985) nobela laburretan zein *Obabakoak* (1988) bilduma ezaguneko narrazioetan azaltzen diren gertaerak. Natura eta kulturaren kontrajartzeak baldintzatzen du Obaban jazotakoa. Berez, mundu aurremoderno da, non *depresioa* edo *eskizofrenia* bezalako hitzak existitzen ez diren; animaliengana jo egiten dute herritarrek ulertu ezin dituzten gertaerak azaltzeko. *Obabakoak* zehazki harremana duten narrazioen bilduma da. Ipuin guztietañ Obabako paisaia afektiboa mugarik gabeko espazio birtuala da, non narratzailearen memoriak istorioak harilkatzen doan. Istorio hauek gogoeta metanarratiboa eta literatura fantastikoko estrategiak batzen dituzte. Bidaia fantastiko hori, ororen gainetik, bidaia literario bat da, bidaia intertextuala. *Obabakoakek* ipuingtonzaren maisuak omentzen ditu, dela generoari buruzko teoriak idatzi duten horiek (Edgar Allan Poe, Horacio Quiroga edo Julio Cortázar), dela XIX. eta XX. mendeko idazleak.

Gazteei zuzenduriko *Behi euskaldun baten memoriak* (1991) nobelarekin errealsismora jauzi egin zuen Atxagak. Pertsonaia nagusiak, Kantek akuilaturiko *sapere aude* leloa bere egiten duen Mo izeneko behiak, gerraostearen gogortasuna Hego Euskal Herrian azaltzen digu. Atxagaren hurrengo nobelek, *Gizona bere bakardadean* (1993), *Zeru horiek* (1995) eta *Soinujolearen semea*












8. Bernardo Atxaga.

atmosphere during the final years of the Franco regime, a period of major political repression. Saizarbitoria wrote his third novel, *Ene Jesus* (1976), making use of the techniques of the *Nouveau Roman*.

Bernardo Atxaga and Koldo Izagirre were, together with Saizarbitoria, the main exponents of experimental models. In 1975 Atxaga and Izagirre published the journal *Panpina ustela*. In its public manifesto which declared that, "Ez dezagula konposturak gal, halere" (anyway, we shouldn't lose our composure), the authors criticised the situation of Basque literature and advocated radical change. Examples of this change are the neo-vanguard novels *Zergatik bai* (1976) by Izagirre and *Ziutateaz* (1976) by Atxaga. Both works closed the experimentalist phase of the 1970s.

After the ratification of the Spanish Constitution in 1978, Euskara became a co-official language with Spanish in the Basque Autonomous Community and the Foral Community of Navarre. This allowed for bilingual educational models to be offered and for grants to aid production in Euskara. Meanwhile, in 1981 university studies in Basque Philology were offered for the first time, encouraging literary research at an academic level. In the 1980s, the Association of Writers (1982), the Association of Translators, Editors and Interpreters (1987) and the Galtzagorri Association (1990), dedicated to the promotion of children's and young literature in the Basque language, were all established.

Jose Irazu Garmendia, better known as Bernardo Atxaga is, without any doubt, the best example of literature in Euskara managing to produce an autonomous writer in the 1980s. Besides being the most prizewinning and translated Basque author, Atxaga is one of the few full-time writers in the Basque language. The imaginary geography of Obaba, which appeared for the first time in "Camilo Lizardi erretore jaunaren etxearen aurkitutako gutunaren azalpena" (1982), occupies a stellar place in Atxaga's work. Obaba owes its origins to a lullaby from Biscay, and it is here that the stories contained in the short novels *Sugeak txoriari begiratzen dionean* (1984), *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* (1984) [Two Basque Stories, 2009] and *Bi anai* (1985) [Two Brothers, 2001], as well as his book of short stories *Obabakoak* (1988), published in English in 1992, take place. The contraposition of nature and culture conditions everything that happens in Obaba. It is a pre-modern world in which there is no place for concepts like "depression" or "schizophrenia" and villagers look to animals to explain things that are beyond their reason. *Obabakoak* is, specifically, a collection of interrelated stories. In all of them the affective landscape of Obaba is an unlimited virtual space in which the narrator's memory weaves the stories. These stories combine metanarrative reflection with the particular strategies of fantasy literature. This voyage of fantasy is, above all else, a literary, inter-textual journey. *Obabakoak* pays tribute to the masters of storytelling, both those who wrote about the theory of this genre (Edgar Allan Poe, Horacio Quiroga or Julio Cortázar, for example), and nineteenth- and twentieth-century authors. Atxaga stepped into realism with the children's novel *Behi euskaldun baten memoriak* (1991) [*Memoirs of a Basque Cow*, 2020]. The main character, a cow called Mo who takes as her own Kant's saying *sapere aude*, tells us about the harsh nature of the post-Civil war era in the Southern Basque Country. The novels *Gizona bere bakardadean* (1993) [*The Lone Man*, 1996], *Zeru horiek* (1995) [*The Lone Woman*, 1999] and *Soinujolearen semea* (2003) [*The Accordionist's Son*, 2007] by the same author offer an ethical analysis of the Basque political conflict. All three novels have as their main protagonists ex-members of



ETA. In the case of *Gizona bere bakardadean* it is Carlos, who is tortured by his previous violent activities; in the case of *Zeru horiek*, we meet Irene, who is condemned to isolation and marginalisation. As regards *Soinujolearen semea*, the focus of the novel is on Franco's repression and ETA's armed struggle, and specifically the Condor Legion's bombardment of Gernika on 26 April, 1937. Throughout the novel, David recounts his memories, reflecting on painful childhood episodes: the Spanish Civil War and post-war era in Obaba. The Obaba in this novel is not, in contrast to its portrayal in *Obabakoak*, a place of whimsical events beyond reason. Rather, it takes on the appearance of a distant Arcadia. Here we come across Iruain, the birthplace of the protagonist, surrounded by bucolic green valleys which have little in common with the second utopian space in the novel: Stoneham Ranch, in Tulare County, California. The utopian hope that Stoneham Ranch initially provides is destroyed once its relationship to the Spanish Civil War is revealed. In reality, Stoneham Fields in Great Britain became a place of exile for four thousand Basque children who fled the war on 21 May, 1937, on the ship "Habana". In this sense, in *Soinujolearen semea* America, far from being the Arcadia which since the Renaissance had inspired all kinds of travellers and artists, becomes the destination for a Basque who decides voluntarily to go into exile for political reasons.

Atxaga's next novel, *Zazpi etxe Frantzian* (2008) [Seven Houses in France, 2011], took a different direction. Leaving aside Obaba and Basque historical memory, this novel focuses on the colonisation process in the Congo. Despite the fact that this is quite a well-known literary theme, Atxaga goes further in his description of colonialism and its ceaseless cruelty. This is not an adventure novel –a genre colonisers turned to in order to justify their crimes—but rather a parody of this through which he highlights the weak points of the hegemonic imperialist ideology. *Nevadako egunak* (2013) [Nevada Days, 2017], winner of the Euskadi Prize for literature, is a blend of fictional and non-fictional genres, whilst *Etxeak eta hilobiak* (2019) summarises the literary universe initiated in *Obabakoak*.

The nineteenth-century Carlist Wars and especially the Spanish Civil War are the focus of many novels in Euskara published in the 1980s and 1990s. Among these, one might point out the following titles: *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* (1979) by Joxe Austin Arrieta; *Euzkadi merezi zuten* (1984) by Koldo Izagirre; *Azukrea belazeetan* (1987), *Gerezi denbora* (1998) and *Sagarrak Euzkadin* (2007) by Inazio Mujika Iraola; *Izua hemen* (1990) and *Kilkerra eta roulottea* (1997) by Joxemari Iturrealde; *Loitzu herrian udapartean* (1993) by Luis Mari Mujika; *Badena dena da* (1995) by Patxi Zabaleta; *Azken fusila* (1994) and *Kilkerraren hotsak* (2003) by Edorta Jimenez; *Zoazte hemendik!* (1995) by Patri Urkizu; *Bihotz bi. Gerrako kronikak* (1996) and *Gorde nazazu lurpean* (2000) by Ramon Saizarbitoria; *Pausoa noiz luzatu* (1998) by Andoni Egaña; *Tigre ehiran* (1996) by Aingeru Epaltza; and *Agur, Euzkadi* (2000) by Juan Luis Zabala.

Although at the beginning of his literary career in the 1970s he was associated with innovative and experimentalist trends, the Spanish Civil




(2003), euskal gatazka politikora hurrerapen etikoa eskaintzen dute. Hiru nobelek etakide ohiak dituzte protagonista; ekintza terroristen memoriak torturaturiko Carlos azaltzen zaigu *Gizona bere bakardadeanen* eta bere militantzia politikoagatik bakardadera eta bazterketara bizi zera kondenaturiko Irene Zeru *horiekin*. Bien bitartean, frankismo garaiko errepresioa eta ETAren jarduera armatua ditu ardatz *Soinujolearen semea* nobelak. Bertan Davidek bere memoriak biltzen ditu, Obaba kokaleku izan zuen bere haurtzaroaren eta 36ko gerran zein gerraostean jazo ziren gertaera mingarrieta sakonduz. Nobelan azaltzen zaigun Obaba ez da, *Obabakoaken* bezala, arrazoiaren bidez nekez azal daitezkeen gertaera fantastikoen kokaleku, baizik eta arkadia urrun bat. Hor dago Iruain, protagonistaren jaiotterria, haran berde eta bukoliko batean kokatua, nobelako bigarren espazio utopikoarekin, Stoneham Ranch (Tulare County, Kalifornia), batere zerikusirik ez duena. Stoneham Ranchek pizturiko utopiaren lilura bertan behera geratzen da hasieratik leku horren eta Spainiako gerrarekin dagoen loturaren bitartez. Izen ere, Stoneham Fields (Britainia Handia) 1937ko maiatzaren 21ean 36ko gerratik Habana ontzian ihes egin zuten 4.000 euskal umeren erbesteleku izan zen. Ildo horretan, Amerika, denetariko bidaiaiak eta artistak inspiratu dituen arkadia izatetik urrun, arrazoi politikoak tarteko bere borondatez erbesteratzen den euskaldun baten helmuga da *Soinujolearen semean*.

Atxagaren hurrengo lanak, *Zazpi etxe Frantzian* (2008), garai kolonialeko Kongo du ardatz. Kongoren kolonizazio prozesuaren gaia literaturan arrotza ez bada ere, Atxagak koska bat estuago egiten du kolonialismoa eta haren krudeltasun mugagabea deskribatzeko orduan. Atxagaren nobela ez da abentura nobela bat, hots, kolonizatzaileek beren krimenak justifikatzeko erabili zuten generoa, baizik eta haren parodia zeinaren bitartez ideologia imperialista eta hegemonikoaren puntu ahulak erakusten zaizkigun. Euskadi saria jasotako *Nevadako egunak* (2013) hainbat genero nahasten ditu eta *Etxeak eta hilobiak* (2019) nobelak, beriz, *Obabakoakekin* abiaturiko unibertsio literarioa laburbiltzen du.

XIX. mendeko gerra karlistak eta, bereziki, 36ko gerra (1936-1939) 1980 eta 1990eko hamarkadetan euskaraz argitaraturiko nobelen askoren ardatz dira. Adibide moduan aipa genitzake Joxe Austin Arrietaren *Abuztuaren 15eko baziak* (1979); Koldo Izagireren *Euzkadi merezi zuten* (1984); Inazio Mujika Iraolaren *Azukrea belazeetan* (1987), *Gerezi denbora* (1998) eta *Sagarrak Euzkadin* (2007); Joxemari Iturralderen *Izua hemen* (1990) eta *Kilkerra eta roulottea* (1997); Luis Mari Mujikaren Loitzu herrian udapartean (1993); Patxi Zabaletaren *Badena dena da* (1995); Edorta Jimenezen *Azken fusila* (1994) eta *Kilkerrera hotzak* (2003); Patri Urkizuren *Zoazte hemendik!* (1995); Ramon Saizarbitorriaren *Bihotz bi. Gerrako kronikak* (1996) eta *Gorde nazazu lurpean* (2000); Andoni Egañaren *Pausoa noiz lutzatu* (1998); Aingeru Epaltzaren *Tigre ehizan* (1996); eta Juan Luis Zabalaren *Agur, Euzkadi* (2000).

Bere lehen lanak 1970eko ildor berritzaile eta esperimentalari lotuta egon arren, Spainiako gerra eta haren ondorio mingariak oso presente daude Koldo Izagirren lanetan. Horren adibide da *Euzkadi merezi zuten* (1984)



9. Koldo Izagirre.

9. Koldo Izagirre.



War and its painful consequences are central to the work of Koldo Izagirre. Evidence of this can be seen in his realist novel *Euzkadi merezi zuten* (1984). In *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak* (1997) the author narrates, by means of fourteen stories full of humour and irony, the ups and downs of a war veteran, the stubborn Nikola de Agirre or *Metxa*. *Metxa* was the main character in Izagirre's next novel, *Agirre zaharraren kartzelaldi berriak* (1999), which tells the story of the voluntary gaol sentence of the old *gudari* (soldier). The Civil War and its consequences are also present in the book of short stories *Sua nahi, M. Churchill?* (2005) and *Franco hil zuten egunak* (2016).

Ramon Saizarbitoria has observed that for him, writing is a struggle against forgetting. He writes because, in the same way as his revered Samuel Beckett, he has a precarious memory (Olaziregi 2009b). For this reason memory is central to his work. His novel *Hamaika pauso* begins with the words "memory is a broken plate", a phrase the author attributes to the writer Claude Simon. Based on the suffering and execution of Daniel Zabalegi in 1975, the novel addresses the process of writing *Hamaika pauso* for its author Iñaki Abaitua. The story begins in 1973 and ends in 1984, after ETA's "autonomous commando units" have assassinated the PSOE (Socialist Party) senator Enrique Casas. As the story unfolds, the biographies of Zabalegi and Abaitua become intertwined. Abaitua, who is obsessed with death, loneliness and human weakness, ends up committing suicide. In this novel Saizarbitoria tells us that we can reconstruct the past in order to demonstrate, with an ethical goal in mind, what the official historiography has hidden: the suffering caused by the Basque political conflict at both an individual and collective level.

In the case of the novel *Bihotz bi. Gerrako kronikak* (1996), Saizarbitoria portrays the disintegration of a marriage between the narrator of the story and his wife Flora. At the beginning of the story the narrator confesses to having murdered his wife by throwing her out of the window. From this moment on the narration goes back in time to describe the events leading up to the crime, concentrating on the crucial moments in this domestic conflict. The novel also mentions another conflict, the Spanish Civil War, which is brought to mind through conversations the couple have with former *gudaris* in a cider house. These *gudaris*, from different factions

nobelaren errealista. *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak* (1997) liburuan, umorez eta ironiaz beteriko hamalau istorioren bitartez, egileak 36ko gerran parte hartu zuen Nikola de Agirre *Metxa agure burugogorraren poz eta tristeziak azaltzen ditu*. Metxa Izagirreren hurrengo nobelan ere agertu zen, *Agirre zaharraren kartzelaldi berriak* (1999), gudariaren borondatezko kartzelaldia azaltzeko. Gerra eta haren ondorioak dituzte ardatz egilearen *Sua nahi, Mr. Churchill?* (2005) eta *Franco hil zuten egunak* (2016) narrazio bildumek ere.

Ramon Saizarbitoriaik adierazi du idaztea berarentzat ahanzturaren kontrako borroka dela; idatzi egiten duela hainbeste miresten duen Samuel Beckettek bezala oroimen kaskarra duelako (Olaziregi 2009b). Horregatik, oroimena oso presente dago bere obran. «Oroimena plater hautsia da», egileak Claude Simon idazlearen ahotan jartzen duen esaldiak abian jartzen du *Hamaika pauso* nobela. 1975ean jazotako Daniel Zabalegiren agonia eta fusilamenduan oinarrituta Iñaki Abaitua osatzen ari den «Hamaika pauso» izeneko nobelaren idazketa-prozesua azaltzen du liburuak. Istorioa 1973an hasten da eta 1984an bukatu, komando autonomoek Enrique Casas PSOEko senataria hil ostean. Narrazioak aurrera joan ahala, Zabalegi eta Abaituaren biografiek bat egingo dute, eta heriotza, bakardadea eta giza ezintasunarekin obsesionaturiko Abaituak bere buruaz beste egingo du. *Hamaika pauson* Saizarbitoria esatera datorriguna zera da, iragana berriro osa daitekeela historiografia ofizialak azaldu ez duena, hots, euskal gatazkak eragin duen sufrimendu indibiduala eta kolektiboa kontatzeko helburu etikoarekin.

*Bihotz bi. Gerrako kronikak* (1996) nobelaren kasuan, Saizarbitoria narratzailearen eta bere emazte Floraren bikote-harremanaren haustura azaltzen du. Nobela hasieran narratzaileak aitortzen du emaztea hil egin duela, sukaldetxo leihatik botata. Une horretatik aurrera, denboran atzera egingo du kontakizunak, eta narratzaileak hilketa burutzeko jarraitu zituen urratsak eta *gerra* domestikoaren gertaera esanguratsuenak azalduko ditu. Gerra domestikoarekin batera, beste gerra bat du aipagai nobelak, 36ko gerra, bikoteak sagardotegi batean gudari zahar batzuekin igaroko dituzten saioetan gogora ekarria. Gudari zaharrak, kontrako bando eta ideologietakoak gerra garaian, arratsaldero elkartzen dira eszena berberak gogoratzeko. Erreferentzia hauek guztiak agerian uzten dute gertaera beraren azpian milaka istorio daudela eta iragana bisitatzea ekintza subjektiboa dela.

*Gorde nazazu lurpean* (2000) liburua bost nobela laburrek osaturik dago: *Gudari zaharraren gerra galdua*; *Rossetti-ren obsesioa*; *Bi bihotz, hilobi bat*; *Marcel Martinen aitatasun ukatua* eta *Asaba zaharren baratza*. Bost lanek, modu batean ala bestean, euskal nazionalismoaren fantasiek eragin duten atrofia afektiboari egiten diote aipamen. *Martutene* (2012) eta *Lili eta biok* (2015) nobeletan, berriz, gerraren traumak belaunaldi ezberdinetan duen eragina aztertzen du Saizarbitoriaik.

36ko gerrarekin batera ETAren indarkeriari buruzko nobelen kopuruak gora egin zuen 1980 eta 1990ko hamarkadetan. Aipatzeko da 1980eko hamarkadan ETAren jarduera handitu egin zela (1987an Hipercor supermarketuan jazotakoa




and with opposing ideologies during the war, meet every afternoon to remember the same scenes. All these references reveal that a thousand stories are hidden behind the same event, and that revisiting the past is a subjective act.

*Gorde nazazu lurpean* (2000) is composed of five short novels: *Gudari zaharraren gerra galdua* ("The Old Soldier's Lost War" in the anthology Our Wars, 2012); *Rossetti-ren obsesioa* [Rossetti's Obsession, 2006]; *Bi bihotz, hilobi bat*; *Marcel Martinen aitatasun ukatua* and *Asaba zaharren baratza*. These five works, in one way or another, refer to the affective atrophy caused by the fantasies of Basque nationalism. In the novels *Martutene* (2012), published in English in 2016, and *Lili eta biok* (2015), however, Saizarbitoria analyses the traumatic effect of the war on different generations.

In a similar way to what happened with the Spanish Civil War, the number of novels addressing ETA's violence increased in the 1980s and 1990s. One should mention that ETA's activity increased in the 1980s (its attack on the Hipercor supermarket left twenty-one people dead). Some of the novels focusing on ETA violence are: *Mugetan* (1989) and *Eulien bazka* (2003) –although the latter indirectly—by Hasier Etxeberria; *Etorriko haiz nirekin?* (1991) and *Ohe bat ozeanoren erdian* (2001) by Mikel Hernández Abaitua; Bernardo Atxaga's already mentioned novels; *Nerea eta biok* (1994); *Nerea and I*, 2005) by Laura Mintegi; *Hamaika Pauso* (1995) by Ramon Saizarbitoria; *Berriro igo nauzu* (1996) by Xabier Mendiguren Elizegi; *Arian-arian* (1996) by Patxi Zabaleta; *Joaten zaretenean* (1997) and *Antzararen bidea* (2009) by Jokin Muñoz; *Kilkirra eta roulettea* (1997) by Joxemari Iturralde; *Pasaia blues* (1999) by Harkaitz Cano; *Zorion perfektua* (2002); *Perfect Happiness*, 2007) and *Etxeko hautsa* (2011) by Anjel Lertxundi; *Hamar urte barru* (2003) by Joxe Belmonte; *Denboraren izerdia* (2003) by Xabier Montoya and *Ezinezko maletak* (2004) by Juanjo Olasagarré. Among all these works, *Antzararen bidea* (2007) by Jokin Muñoz stands out.

Jokin Muñoz began his literary career in the 1990s with the novel *Joan zaretenean* (1997), which demonstrates the influence the past exercises on human beings. Positive critical reception came later for the book of short stories *Bizia lo* (2003), in which he analyses the Basque political conflict from different points of view. The author received the Euskadi Prize for Literature for this work. His most accomplished work, however, is the novel *Antzararen bidea* (2007), for which he also won the Euskadi Prize. *Antzararen bidea* tells the story of Lisa. Lisa's son, Igor, is a member of ETA and he dies after a bomb

he is preparing explodes in an apartment in Salou (Tarragona, Catalonia). Following her son's death, Lisa starts looking after an old man called Jesús. Jesús belongs to a landowning family from Trilluelos, a fictitious town in the Eribera (Ribera) region of Navarre, which during the Spanish Civil War suffered repression at the hands of Falangists. The novel reads like a psychological thriller, demonstrating how violence has destroyed the lives of its protagonists, how it has taken away from them what they most loved in life. It is a gallery of characters without direction, like the geese




atentatuak 21 hildako utzi zituen). ETAren indarkeria ardatz duten nobeletako batzuk dira Hasier Etxeberriaren *Mugetan* (1989) eta *Eulien bazka* (2003), azken horrek zeharka egiten badu ere; Mikel Hernandez Abaituaren *Etorriko haiz nirekin?* (1991) eta *Ohe bat ozeanoren erdian* (2001); Laura Mintegiren *Nerea eta biok* (1994); Xabier Mendiguren Elizegiren *Berriro igo nauzu* (1996); Patxi Zabaletaren *Arian-arian* (1996); Jokin Muñozen *Joaten zaretenean* (1997) eta *Antzararen bidea* (2009); Joxemari Iturralderen *Kilkirra eta roulottea* (1997); Harkaitz Canoren *Pasaia blues* (1999); Anjel Lertxundiren *Zorion perfektua* (2002) eta *Etxeko hautsa* (2011); Joxe Belmonteren *Hamar urte barru* (2003); Xabier Montoiaren *Denboraren izerdia* (2003) eta Juanjo Olasagarreren *Ezinezko maletak* (2004). Horien artean nabarmentzekoa da Jokin Muñozen *Antzararen bidea* (2007).

Jokin Muñozek 1990eko hamarkadan hasi zuen bere literatur ibilbidea. Ordukoa da bere lehen nobela, *Joan zaretenean* (1997), iraganak gizakiongan duen eragina azaltzen duena. Kritikaren onarpena geroxeago, gatazka politikoak euskal gizartean duen eragina hainbat ikuspuntutik aztertzen duen *Bizia lo* (2003) narrazio bildumarekin heldu zittaion. Lan horrekin, hain zuen, Euskadi literatura saria jaso zuen egileak. Bere lanik biribilena, ordea, *Antzararen bidea* da, harekin ere Euskadi saria jaso zuen. *Antzararen bideak* Lisaren istorioa kontatzen du. Lisaren semea, Igor, ETAko kidea da eta Salouko (Tarragona) apartamentu batean manipulatzen ari den bonba eztandaren ondorioz hil egiten da. Jesus izeneko agure bat zaintzeaz arduratzan da Lisa. Jesus Nafarroako Erriberan kokaturiko Trillueloseko (asmaturiko herria) Iur-jabe familia baten ondorengoa da, eta 36ko gerran errepresio faxista jasan zuen. Nobela *thriller* psikologiko moduan planteatuta dago, indarkeriak istorioko protagonisten bizitza nola hautsi duen, gehien maite zutena nola kendu dien azalduz. Norabide jakinik gabe mugitzen diren pertsonaia galeria da, nobela hasieran aipatzen diren antzaren antzeko: Jesusen osaba falangistak burua moztu ostean, antzarek ibiltzen jarraitzen zuten harik eta lurrera erori arte, odolputzu baten erdian. Muñozen lana, ordea, harantzago doa gerran altxatutakoek erakutsitako indarkeria ETAren indarkeriarekin harremanean jarriaz.

Aro demokratikoko literatur panoraman jazotako gertaera esanguratsuenetako bat emakumeen parte-hartzea euskal literaturan izan da. Gizonezkoekin konparatuta, emakumeen kopurua oraindik ere txikia da euskal literaturan (%15 ingurukoa dela uste da). Bestetik, euskal kritika feministak salatu du, Linda Whitek (1996) egindako azterketatik abiatuta, euskal literaturaren historiografia irizpide androzentrikoetan oinarritu izan dela (Olaziregi 1999). Edonola ere, emakumeek idatzitako euskal literatura nabarmenago egin da XX. mendeko azken hamarkadatik aurrera, doktorego tesiei (Nuñez Betelu 2001, Gonzalez 2007) eta ikerketa akademikoei esker (Iris Zavala 2000; Gabilondo 2006).

Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik, panpox* (1979) nobela laburrak duela bost urte senarrak utzitako emakume baten eta bere zazpi urteko semearen bizitzan egun bat jasotzen du. Nobelak, 1970ean Frantzian agertu zen «diferentziaren feminismoa» delakoari jarraituz argitaratu ziren lanen antzera, emakumearen rolaren gaineko gogoetak



10. Arantxa  
Urretabizkai.



10

10. Arantxa  
Urretabizkai.

mentioned at the beginning of the novel: after the Falangist uncle of Jesús used to cut their heads off, the geese would continue to walk for a while before falling wearily to the ground in a pool of blood. The novels of Muñoz, however, go further still, by linking the violence of the rebels during the Civil War with that of ETA.


One of the most striking features of the literary panorama in the democratic era has been the participation of women in literature written in Euskara. The number of women writers is still small in comparison to that of men (it is believed to be around 15 per cent). Meanwhile, based on the research undertaken by Linda White (1996), a feminist critique has criticised the fact that, to date, the historiography of Basque literature has been based on androcentric criteria (Olaziregi 1999). Whatever the case, literature written by women from the 1990s on has become markedly more visible as a result of several doctoral theses (Nuñez Betelu 2001, González 2007) and academic works (Iris Zavala 2000; Gabilondo 2006).

The short novel *Zergatik, panpox* (1979) [Why Little Darling, 2020] by Arantxa Urretabizkai describes the ups and downs in a day in the life of a mother abandoned by her husband five years earlier and of her seven-year-old. In the same way as novels published within the framework of the “feminism of difference” in France during the 1970s, this novel reflects on women’s roles. In this regard, it addresses women’s working conditions, motherhood and women’s bodies, amongst other topics. In her second novel, *Saturno* (1987), Urretabizkai chose a more conventional narrative style. This novel is about the romantic relationship between an alcoholic sailor and a nurse called Maite. After an eleven-year silence, the author from Gipuzkoa then published *Koaderno gorria* (1998) [The Red Notebook, 2008]. This work is organised on two levels: the first focuses on a letter which the protagonist, Ama (the name appears in block capitals in the text) writes to her children in a red notebook. Since their father took them with him seven years ago, the woman has had no news of them at all. The

islatzen ditu. Alde horretatik, aipamen ugari egiten zaizkie emakumeen lan baldintzei, amatasunari eta emakumearen gorputzari, besteak beste. Bere bigarren nobelan, *Saturno* (1987), konta molde tradizionalagoetara jo zuen Urretabizkaiak. Lanak marinel alkohol zale baten eta Maite izeneko erizain baten arteko maitasun harremana azaltzen du. Hamaika urteko isilunearen ostean, gipuzkoarrak *Koaderno gorria* (1998) argitaratu zuen. Nobela bi planotan antolatuta dago: lehenengoak, protagonistak, Ama (testuan letra larriz agertzen da), bere seme-alabei koaderno gorri batean idatziriko gutun luzea du oinarri. Zazpi urte lehenago aitak berarekin eraman zituenetik, emakumeak ez du haurren berririk izan. Bigarren planoan, Amak seme-alabei koadernoa emateko Venezuela bidali duen abokatuaren bidaia azaltzen zaigu. *Koaderno gorriak* generoak baldintzaturiko gizartean militanzia politikoaren eta amatasunaren bateraezintasunaz gogoeta egiten du. *3 Mariak* nobelan, berriz, emakumeek euskal gizartean betetzen duten rola du hizpide, kasu honetan zahartzaroaren ikuspuntutik egiten du.

Euskal nazionalismoari, bai tradizionalari bai erradikalari zuzenduriko kritika da Itxaro Borda idazlearen lan askoren ardatza, Euskadi literatura saria jasotako %100 Basque (2001) haien artean. *Susmaezinak* (2019) nobelan, berriz, 1980eko hamarkadan euskal gatazkak Iparraldean izandako eragina azaltzen zaigu. Bordaren lanik esanguratsuenak Amaia Ezpeldoi detektibe protagonista duten nobelak ditugu: *Bakean ützi arte* (1984), *Bizi nizano munduan* (1996), *Amorezko pena baño* (1996), *Jalgi hadi plazara* (2007), *Boga boga* (2012) eta *Ultimes déchets* (2015). Nobela beltza baliatuz, Bordak euskal gizartearren gatazka gune nagusiak (egoera politikoa, euskara, intsumisioa, industrializazioa, migrazioa, genero gatazkak, neoliberalismoa) aztertzen ditu. Era berean, beste hainbat emakume idazleren antzeria (Walton & Jones 1999), Bordak Raymond Chandler eta Dashiell Hammett-ek bultzaturiko nobela beltzan azaltzen den *hard boiled detective* delakoa birplanteatu egiten du: Amaia Ezpeldoi detektibea abertzalea eta lesbiana da, eta Lenin miresten du.

Euskal egoera politikoa eta emakumeek bertan betetzen duten rola dira Laura Mintegiren lan gehienetan oinarri. Bere estreinako nobela, *Bai... baina ez*



11

**11.** Itxaro Borda.  
**12.** Laura Mintegi.



12

second level focuses on a trip to Venezuela by a female lawyer hired by the mother to hand the notebook to her children. *Koaderno gorria* addresses the relationship between maternity and nation or, to be more precise, the difficulty of combining political activism with maternity in a society conditioned by its perspectives on gender. In 2010 Urretabizkai published *3 Mariak*. Here, once again, the author analyses the role of women in Basque society, but on this occasion from the perspective of old age.

A critical perspective of Basque nationalism, whether traditional or radical, is the focus of many works by Itxaro Borda, amongst them %100 Basque (2001), which won the Euskadi Prize. The novel *Susmaezinak* (2019), however, reflects on the effects of the Basque conflict in the Northern Basque Country during the 1980s. Borda's most significant work is that of the novels whose main protagonist is the detective Amaia Ezpeldoi: *Bakean ützi arte* (1984), *Bizi nizano munduan* (1996), *Amorezko pena baño* (1996), *Jalgi hadi plazara* (2007), *Boga boga* (2012) and *Ultimes déchets* (2015). Employing the techniques of detective fiction, Borda explores the key conflictive points in Basque society (the political situation, Euskara, refusal to do military service, industrialisation, immigration, gender conflicts, neoliberalism). Likewise, in the same way as other authors (Walton and Jones 1999), Borda reconsiders the so-called hard-boiled detective characteristic of the detective fiction created by Chandler and Hammett: the detective Amaia Ezpeldoi is a patriot and a lesbian, as well as being an admirer of Lenin.

The Basque political situation and the role of women in it form the basis of the work of Laura Mintegi. Her first novel, *Bai... baina ez* (1986), a counterstory of the novel *Haur besoetakoa* by Jon Mirande, is a love story located outside social norms. Her next work, *Legez kanpo* (1991), follows the techniques of detective fiction to show the torture suffered by Basque political prisoners. A female prisoner, Nerea, is the co-protagonist of *Nerea eta biok* (1994). In *Sisifo maite minez* (2001) and *Ecce Homo* (2006), Mintegi reflects on love and the contribution that women can make to politics respectively.

In her novel *Eta emakumeari sugeak esan zion* (1999) [And the Serpent Said to the Woman, 2005] Lourdes Oñederra breaks with some features which have tended to be considered typically female (maternity, weakness, passivity). The serpent promised Eve she would get wisdom by eating the apple. The consequences of this act were, however, varied: guilt and punishment, and having to live in submission to men. The journey

(1986), Jon Miranderen *Haur besoetakoaren kontraerrelatoa*, gizarte arauetatik at kokatzen den maitasun istorioa dugu. Egilearen hurrengo lanak, *Legez kanpo* (1991), nobela beltza jarraitzen du euskal presoek jasandako torturak azaltzeko. Preso dagoen emakume bat, Nerea, da bere hurrengo nobelako koprotagonista, *Nerea eta biok* (1994). *Sisifo maite minez* (2001) eta *Ecce Homo* (2006) lanetan, berriz, Mintegik maitasunaren nondik norakoak eta politikari emakumeek egin diezaioketen ekarpena azaltzen ditu, hurrenez hurren.

Bien bitartean, Lourdes Oñederraren *Eta emakumeari sugeak esan zion* (1999) nobelak emakumeei lotu izan zaizkion rolekin (amatasuna, ahultasuna, pasibotasuna) hautsi egiten du. Sagarra jaten bazuen jakinduria osoaren jabe egingo zela zin egin zion sugeak Evari. Ondorioak, baina, bestelakoak izan ziren: errua eta zigorra, eta gizonen menpe bizi behar izatea. Nobelako protagonistak, 35 urteko Teresa, W-ra egingo duen bidaia bere burua eta orain arte erabilitako hizkuntza auzitan jartzeko aitzakia izango da. *Intemperies (babes bila)* (2013) nobelan bikote harremanei heltzen die berriz egileak.

Bestetik, Pello Lizarralderen literaturan zentzumenez jasotzen dena kontatzen da, interpretaziorik egin gabe; gertaerak azaltzen dira, baina gertaeren atzean dagoena jakinarazi gabe. Giro honetan, isilaldian gordetzen dena, esan edo ikusten ez dena misterio handia suertatzen zaio irakurleari eta, horrenbestean, edozein ekintzaren atzean (denik eta ekintzarik arruntena ere) zerbaite bitxia dagoelako impresioa uzten dio, zerbaite bitxi eta misteriotsu hori zehazki zer den jakitera inoiz heltzen ez den arren. Ondoko nobelak argitaratu ditu Lizarraldek: *E pericoloso sporgersi. Zuri beltzean* (1984), *Hatza mapa gainean* (1988), *Un ange passé -isialdieten-* (1998), Euskadi saria jasotako *Larrepetit* (2002), *Iragaitzaz* (2008), *Orbanak* (2012), *Elur bustia* (2016) eta *Argiantza* (2021) Euskadi saria izan zena. Ipuin bilduma bat ere idatzi du, *Sargori* (1994).

Harkaitz Canok poesia, haur- eta gazte-literatura, kronika, saiakera eta narratiba jorratu ditu. Azken horren barruan kokatzen dira *Telefono kaiolatua*



**13.** Pello Lizarralde.  
**14.** Harkaitz Cano  
idazlea eta Leire  
Palacios kazetaria,  
Durangoko Azokan,  
2018.

**13.** Pello Lizarralde.  
**14.** The writer Harkaitz  
Cano and journalist  
Leire Palacios at the  
Durango Book and  
Record Fair (Biscay),  
2018.



undertaken by Teresa, the protagonist of the novel, to W. serves as a pretext for her to question and analyse the language used to date. In *Intemperies (babes bila)* (2013), the writer analyses couples' relationships.

Other authors that stand out are: Pello Lizarralde, Harkaitz Cano, Unai Elorriaga, Kirmen Uribe, Karmele Jaio and Katixa Agirre. The literature of Pello Lizarralde reflects what the senses harness without making any interpretation; it shows us the events, but without revealing what lies behind them. In this context, what remains silent, unsaid or unseen is a complete mystery for the reader and, for this reason, conveys the impression that something strange lies behind any act, however routine, although one never really knows what is so strange or mysterious. To date, Lizarralde has published these novels: *E pericoloso sporgersi. Zuri beltzean* (1984), *Hatza mapa gainean* (1988), *Un ange passé -isialdieten-* (1998), the winner of the Euskadi Prize for Literature *Larrepetit* (2002), *Iragaitzaz* (2008), *Orbanak* (2012) and *Elur bustia* (2016); *Argiantza* (2021) winner aswell of the Euskadi Proze for literature in 2021; together with a book of short stories *Sargori* (1994).

Harkaitz Cano has written poetry, children's literature, newspaper columns, essays and narrative. In the latter category are his short story works *Telefono kaiolatua* (1993), *Neguko zirkua* (2005) and *Beti oporretan* (2015), as well as the novels *Beluna Jazz* (1996), *Pasaia blues* (1998), the winner of the Euskadi Prize for Literature *Belarraren ahoa* (2004; *Blade of Light*, 2010), *Twist* (2011), published in English in 2018, and *Fakirraren ahotsa* (2018). Following the techniques of dirty realism practiced by, amongst others, Raymond Carver, Cano's narrative draws on an apparently balanced reality to highlight its breaking points. Likewise, the main feature of both his narrative and his poetry is the postmodern city, a decentred city, in which Cano's characters (musicians, writers, psychopaths) roam. In the novels *Twist* and *Fakirraren ahotsa* Cano turns his gaze towards the conflict in order to delve into topics such as memory, forgetting, involvement, blame and redemption.

Unai Elorriaga and Kirmen Uribe won the Spanish National Prize for Literature with their first novel, in 2002 and 2009 respectively. Amongst

(1993), *Neguko zirkua* (2005) eta *Beti oporretan* (2015) narrazio bildumak, eta *Beluna Jazz* (1996), *Pasaia blues* (1998), Euskadi literatura saria jasotako *Belarraren ahoa* (2004), *Twist* (2011) eta *Fakirraren ahotsa* (2018) nobelak. Raymond Carver-ek landuriko dirtyrealism edo errealsismo zikinaren ildotik, Canoren ipuingintza utez orekauta den errealtatetik elikatu egiten da haren hausturak azaltzeko. Era berean, bere narratibaren zein poesiaren ezaugarri nagusia hiri posmodernoa da. Gune zehatzik gabeko hiria dugu, zeinetatik norabiderik gabe mugitzen diren Canoren pertsonaiak (musikariak, idazleak, psikopatak). *Twist* eta *Fakirraren ahotsa* nobeletan euskal gatazkari heltzen dio Canok, memoria, ahanztura, inplikazioa, erruduntasuna eta erredentzioa bezalako gaietan sakontzeko.

Unai Elorriagak eta Kirmen Uribek Espaniako Literatur Sari Nazionala jaso zuten beren lehen nobelagatik, 2002an eta 2009an hurrenez hurren. Elorriagak orain arte argitaratutako lanen artean –*Van't Hoffen ilea* (2003), *Vredaman* (2005), *Londres Kartoizkoa da* (2009), *Iazko hezurrak* (2014) eta *Iturria* (2019)– aipagarriena da *SPrako tranbia* (2001). Nobela hainbat hizkuntzatara itzuli dute eta zinemara egokituz zuen Aitzol Aramaiok 2007an. Lanak Alzheimerren eraginez oroimena galtzen ari den Lucas du protagonista. Bi kontuk mantentzen dute Lucas bizirik: Shisha Pangma igotzeak eta jadanik hilda dagoen emaztearen oroitzapenak. Lucasekin batera bere arreba Maria eta haietan bizitzera joango den Marcos gaztea azaltzen dira. Elorriagak gehien estimatzen dituen idazleen artean daude Jorge Luis Borges, Julio Cortázar, Juan Rulfo eta William Faulkner eta, hain zuzen, azken horren eragina sumatu daiteke *SPrako tranbian*. Faulknerren *Hotsa eta ardaila* nobelan erabilitako ahots aniztasuna bere eginez, oroimen arazoak tarteko fantasiaren eta errealtitatearen artean bereizteko gai ez den Lucasen mundua gerturatzen digu egile bizkaitarrak.

Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* (2008) lanak idazlearen homonimoak Bilbotik New Yorkera egindako hegazkin bidaia azaltzen du. Bidaia aitzakia hartuta, bere familiaren hiru belaunaldiren gorabeherak, 36ko gerra garaian bizitakoak batez ere, gogora ekartzen ditu lanak. Bidaia, era berean, artearen funtziaren zein artistak bizitzarekiko izan behar duen erantzukizunaren gainean gogoeta egiteko baliatzen du egileak. Irakurlea



15. Kirmen Uribe.

15. Kirmen Uribe.

Elorriaga's published novels—*Van't Hoffen ilea* (2003), *Vredaman* (2005) [*Plants Don't Drink Coffee*, 2009], *Londres Kartoizkoa da* (2009), *Iazko hezurrak* (2014) and *Iturria* (2019)—the most important is *SPrako tranbia* (2003). This novel has been translated into several languages and was made into a film by Aitzol Aramaio in 2007. The protagonist of *SPrako tranbia* is Lucas, an old man who is losing his memory as a result of Alzheimer's. The only thing that keeps Lucas going is his desire to climb Shisha Pangma and the memory of his late wife. Together with Lucas, the other main characters are his sister Maria and a young man who ends up living with them, Marcos. Elorriaga's favourite novelists include Jorge Luis Borges, Julio Cortázar, Juan Rulfo and William Faulkner. The latter, in particular, has had a clear influence on *SPrako tranbia*. Imitating the diversity of voices in Faulkner's *The Sound and the Fury*, the author from Biscay takes us inside Lucas's mind, which, because of his confused memory, is incapable of differentiating between fantasy and reality.

*Bilbao-New York-Bilbao* (2008), published in English in 2014, by Kirmen Uribe tells the story of a trip by the author's namesake by plane from Bilbao to New York. Taking the trip as an excuse, the author revisits the events in the lives of three generations of his family, and especially those during the Spanish Civil War. The trip, likewise, serves as the pretext for reflecting on the function of art and the artist's responsibility towards life. The reader is witness to the process of writing itself; the text takes shape before one's

very eyes via electronic messages, diary entries, texts taken from Wikipedia, and so forth. In the novels *Mussche* (2012) and *Elkarrekin esnatzeako ordua* (2016) the author once again discusses episodes taken from reality in order to recover a series of lives conditioned by war.

The perspective of gender forms the backbone of the narrative of Karmele Jaio, inviting readers to imagine family relations and social dynamics in another way. Generational differences, old age and the influence that the past may end up having on the present are some of the subjects addressed by the novels *Amaren eskuak* (2006) and *Musika airean* (2009). *Aitaren etxea* (2019), for its part, reflects on the father-husband role in order to question traditional attitudes and suggest other

types of masculinities. Jaio is, moreover, the author of three books of short stories: *Hamabost zauri* (2004), *Zu bezain ahul* (2007) and *Ez naiz ni* (2012).

The novels of Katixa Agirre reflect how popular culture and the media construct and deconstruct both individual and national identity. In *Atertu arte itxaron* (2015) she recounts a couple's road trip through the Basque Country in order to get to know one another better. However, the trip will not go as planned since their different backgrounds condition the couple more than they think. For its part, the novel *Amek ez dute* (2018) focuses on myths of maternity through the case of a mother who kills her children. Throughout the narrative, Agirre weaves together examples from history, philosophy, literature, and film to pose provocative questions about the creative act (in relation to both maternity and writing), the representation of gender (who usually has



testuaren beraren idazketa prozesuaren lekuo da; haren aurrean osatzen joango da mezu elektroniko, eguneroko zati, Wikipedia sarrera eta abarren bidez. *Mussche* (2012) eta *Elkarrekin esnatzeo ordua* (2016) nobeletan ere benetako gertaerei heltzen die gerrak baldintzaturiko bizitzak berreskuratzeko.

Genero ikuspegiak gidatzen du Karmele Jaioen nobelagintza, eta irakurlea bultzatzen du familia eta gizartearen dinamikak beste modu batera imajinatzera. Belaunaldien arteko aldea, zahartzaroa eta iraganak orainaldia nola baldintzatu dezakeen aztertzen dute bere *Amaren eskuak* (2006) eta *Musika airean* (2009) nobelek. *Aitaren etxea* (2019) lanean, beriz, aita-senaren rola du hizpide jarrera tradizionalak baztertu eta bestelako maskulinitateak proposatu aldera. Hiru ipuin bildumaren egile ere bada Jaio: *Hamabost zauri* (2004), *Zu bezain ahal* (2007) eta *Ez naiz ni* (2012).

Katixa Agirreren nobelek kultura popularrak eta komunikabideek nortasuna, dela indibiduala dela nazionala, nola eraiki eta deseraikitzen duten aztertzen dute. *Atertu arte itxaron* (2015) lanean hobeto elkar ezagutzeko asmoz bikote batek autoz Euskal Herrian zehar egiten duen bidaia kontatzen zaigu. Bidaian ezer ez da planifikatukoaren arabera aterako, ordea, jatorri ezberdintasunak uste baino gehiago baldintzatzen duelako beren arteko harremana. *Amek ez dute* (2018) nobelak, beriz, bere haurrak hil dituen ama baten kasutik abiatuta amatasunaren gaineko mitoei heltzen die. Istorioan zehar historia, filosofia, literatura zein zinematik harturiko adibideak trebetasun handiz txertatzen ditu Agirrek sortzearen (dela amatasuna dela idazketa), generoaren, errepresentazioaren (nork hitz egiten duen eta noren izenean) zein justizia sistemaren (gizarte zigortailea ala errehabilitatzalea ote da gurea?) gainean galdera interesgarri askoak planteatzen dituen nobelan.

Elkar fundazioak eta Siadeco ikerketa taldeak euskal kulturaren erabilera eta kontsumoaren gainean osatu eta 2018ko udaberrian zabaldutako txostenak nahiko panorama beltza aurkeztu zuen. Txostenaren arabera, inuesta egin dieten artean %28k bakarrik adierazi zuen euskaraz idatzitako liburuak sarri irakurtzen dituztela. Paradoxikoki, argitalpen kopuruari zein edukiari begira, indartsu hasi zuen euskal literaturak XXI. mendea. Nabarmenzeko da mendeko lehen bi hamarkadetan memoria historikoak euskal literaturan izan duen pisua, batik bat 36ko gerraren memoria berreskuratzeari dagokionez.



16

16. Karmele Jaio.  
17. Katixa Agirre.

16. Katixa Agirre.  
17. Uxue Alberdi.



the floor and on whose behalf) and the judicial system (is ours a punitive or rehabilitating society?).

A study carried out in the spring of 2018 by the Elkar Foundation and the Siadeco research group on the use and consumption of Basque culture revealed quite a bleak panorama. According to the study, 28% of respondents indicated reading books written in Euskara assiduously. Paradoxically, Basque literature began the twenty-first century strongly as regards the number of books published and their quality. It is worth noting the importance of historical memory in the literature produced in the first two decades of the century, especially with regard to regaining the memory of the Civil War.

The interest of Basque literature in memory is not an isolated phenomenon; on the contrary, it should be understood as part of the memory boom that took place in Western countries from the 1980s onwards. The main feature of this memory literature is that it is not limited to narrating what happened in the past; the mnemonic process itself is under study. In other words, *what* is remembered is as important as *the manner* in which it is remembered. Likewise, intertextuality is highlighted, linking the violence of war to other types of violence. It is worth emphasising that some of the works published in the first two decades of the 2000s are the result of the so-called post-memory generation, according to Marianne Hirsch. This is a generation that has not lived through the events they write about and whose memory they have received through their parents, grandparents, school and textbooks. Examples of this type of work are *Bilbao-New York-Bilbao* (2008), *Mussche* (2012) and *Elkarrekin esnatzeo ordua* (2016) by Kirmen Uribe, and *Aulkki-jokoa* (2009) by Uxue Alberdi.

Interest in historical memory is not limited to the Spanish Civil War. Through Basque literature, visibility has also been given to the First World War, as in the case of *Hezur gabeko hilak* (1999) and *Blackout* (2004) by Xabier Montoya or *Ur biren artean* (2019) by Patxi Iturregi. While ETA violence was not a new topic, the end of the armed conflict (in 2011 the organisation ended its armed activity) has allowed writers to delve more deeply into all kinds of perspectives. The Dirty War carried out by the Spanish state is the central focus of *Twist* (2011) by Harkaitz Cano, whilst *Deklaratzekorik ez* (2019) by Beñat Sarasola reflects on the effects of the *kale borroka* (rioting and vandalism). Meanwhile, *Gerra txikia* (2014) by Lander Garro, *Jenisjoplin* (2017) by Uxue Alberdi and *Susmaezinak* (2019) by Itxaro Borda reflect the turbulent atmosphere of the 1980s. *Jenisjoplin* analyses the effect of political activism, drugs and AIDS in the Southern

Euskal literaturak memoriarekiko agerturako interesa ez da fenomeno isolatua; aitzitik, 1980eko hamarkadatik aurrera Mendebaldeko herrialdeetan jazo zen memoriaren eztandaren barruan kokatu behar dugu. Memoriaren literatura honen bereizgarria da ez dela iraganeko gertaerak azaltzera mugatzen; oroimen prozesua bera du aztergai, hots, zer gogoratzan den nola gogoratzan den bezain garrantzitsua da. Bestetik, interseksionalitateari helduta gerrako indarkeria beste indarkeria mota batzuekin jartzen du harremanetan. Nabarmenzeko da 2000ko lehen bi hamarkadetan gerraren inguruan argitaraturiko zenbait lan Marianne Hirsch-ek postmemoriaren belaunaldia deituriko horrek, hau da, gertaera bizi ez eta haren inguruko informazioa guraso, aitona-amona, eskola, zein testuliburu etatik jaso duen belaunaldiak idatzitituela. Horren adibide ditugu Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* (2008), *Mussche* (2012) eta *Elkarrekin esnatzeko ordua* (2016) zein Uxue Alberdiren *Aulkiko jokoa* (2009).

Memoria historikoarekiko interesa ez da Espainiako gerrara mugatzen. Iragan hurbileko zein aurreko mendeetako gatazkei ere bide egin zaie euskal literaturan, besteak beste Lehen Mundu Gerrari, Xabier Montoiaren *Hezur gabeko hilak* (1999) eta *Blackout* (2004) zein Patxi Iturregiren *Ur biren artean* (2019) lanek azaldu bezala. ETAren indarkeria gai berria ez bazeen ere, gatazka armatuaren amaierak (2011n arma bidezko jarduera politikoa behin betiko utzi zuela iragarri zuen erakundeak) denetariko ikuspegieta sakontzeko aukera eman die euskal idazleei. Espainiar estatuak bideraturiko gerra zikina agertzen zaigu Harkaitz Canoren *Twist* (2011) nobelan, eta kale borrokaren mundua Beñat Sarasolaren *Deklaratzekorik ez* (2019) lanean. Bien bitartean, 1980ko giro nahasia dute hizpide Lander Garroren *Gerra txikia* (2014), Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* (2017) zein Itxaro Bordaren *Susmaezinak* (2019) lanek. *Jenisjoplin* aipatu hamarkadan Hego Euskal Herrian militantzia politikoaren, drogen eta HIESAren eragina azaltzen duen kontaketa eskaintzen digun bitartean, Bordaren nobelak garai berean Iparraldean errefuxiatu politikoek GALen eskuistik jasandako errepresioa, ETAren indarkeria eta biktimak parez pare jartzen ditu.

Memoria historikoaren eztandak ez du gaur egungo gaiekiko interesa apaldu. Aitzitik, XXI. mendeko Euskal Herria begi kritikoz aztertzen duten nobeletako askok, Europan eta, oro har, Mendebaldean betetzen duen tokia galdekatzen dute. Genero kontuei heltzen diente lan hauetako batzuek, hala nola jadanik aipaturiko Katixa Agirreren *Amek ez dute* (2018) eta Karmele Jaioren *Aitaren etxea* (2019) nobelek zein Hego Euskal Herriko gay mugimenduaren etnografia modukoa eskaintzen duen Juanjo Olasagarreren *Poz aldreibesa* (2017) lanak. Politika neoliberalen eragina eta immigrazioa dute hizpide beste batzuek; Iñaki Frieraren *Lehorreko paterak* (2001), Iñigo Aranbarriren *Zamaontzia* (2011) eta *Apirila* (2014) zein Amets Arzallus eta

Ibrahima Balderen *Miñan* (2019) aipa daitezke adibide moduan.

Ezin aipatu gabe utzi nobela grafikoak bizi duen loraldia euskal literaturan. Euskal Herriarentzat iragan alternatibo bat irudikatzen duen Hedoi Etxarte idazlearen eta Alain M. Urrutia marrazkilariaren *Ihes ederra* (2009) lanak

**18.** 2020ko Euskadi sariak Durangoko Azokan. Iñigo Astiz, Idoia Santamaría, Uxue Alberdi eta Karmele Jaio.



18

**18.** 2020 Euskadi Prize winners at the Durango Fair. Iñigo Astiz, Idoia Santamaría, Uxue Alberdi and Karmele Jaio.

Basque Country during that era, whilst Borda's novel creates a dialogue between the repression suffered by political refugees in the Northern Basque Country at the hands of the GAL, the violence of ETA and the victims.

The historical memory boom has not weakened interest in current affairs. On the contrary, many of the novels offer a critical view of the Basque Country in the twenty-first century, questioning the place it occupies in Europe and the Western world in general. Some of these works focus on gender issues, such as the aforementioned *Amek ez dute* (2018) by Katixa Agirre and *Aitaren etxea* (2019) by Karmele Jaio, or *Poz aldreibesa* (2017) by Juanjo Olasagarré, which offers a kind of ethnography of the gay movement in the Southern Basque Country. The effect of neoliberal policies and immigration is the focus of other works like *Lehorreko paterak* (2001) by Iñaki Friera, *Zamaontzia* (2011) and *Apirila* (2014) by Iñigo Aranbarri and *Miñan* (2019) by Amets Arzallus and Ibrahima Balde.

One must also mention the resurgence of the graphic novel in Basque literature. The work *Ihes ederra* (2009), by Hedoi Etxarte and Alain M. Urrutia, which suggests an alternative past for the Basque Country, started off this movement. It was followed by *Black is beltza* (2018) by Fermín Muguruza, Harkaitz Cano and Jorge Alderete, *Joana Maiz* (2019) by Yurre Ugarte and Joseba Larratxe, *Buyan. Heriotzaren uhartea* (2019) by Etxeberria brothers and Aritz Trueba, and *Antzara eguna* (2019) by Harkaitz Cano and Adur Larrea.

## THE SHORT STORY

The short story, in the modern sense of the term, is quite a recent genre in Euskara. Indeed, it was not until the 1950s and 1960s, with works by Gabriel Aresti (*Ipuinak* 1979) and Jon Mirande (*Gauaz parke batean*, *Ipuin izugarriak* 1984), that short stories in the modern tradition of Poe, Gogol and Maupassant first emerged. One should also note Martin Ugalde's collection *Iltzalleak* (1961). That said, this genre gained ground in the 1980s, both in terms of quality and output. Together with the aforementioned historic-cultural reasons,

abiarazi zuen mugimendu hau. Argitaraturiko beste nobela grafikoetako batzuk dira Fermín Muguruza, Harkaitz Cano eta Jorge Aldereteren *Black is beltza* (2018), Yurre Ugarte eta Joseba Larratxeren *Joana Maiz* (2019), Etxeberria anaien eta Aritz Truebareni *Buyan. Heriotzaren uhartea* (2019) zein Harkaitz Cano eta Adur Larrearen *Antzara eguna* (2019).

## IPUINA

Ipuina, terminoaren zentzu modernoan, genero berria da euskaraz. 1950 eta 1970eko hamarkadetan agertu ziren, Gabriel Aresti (*Ipuinak* 1979) zein Jon Mirande (*Gauaz parke batean, Ipuin izugarriak* 1984) bezalako egileen eskutik, Poe, Gogol zein Maupassant bezalako idazle modernoen estiloko ipuinak. Aurrekari bezala Martin Ugalderen *Itzalleak* (1961) ere aipa genezake. Dena dela, 1980eko hamarkadan sendotu zen generoa, kopuru zein kalitate aldetik. Lehenago aipaturiko arrazoi historiko-kulturalekin batera, Pott Bandaren (1978-1979) ekarpena azpimarratu behar da generoari eman zion bultzadagatik.

solemn way; yet in his second work he inclines more towards an ironic and humorous expression of life, exploring everyday things through the use of direct language and identifying himself aesthetically with the painter Jean-Michel Basquiat and dirty realism.

Together with Gabriel Aresti's *Herri eta Herri* and Bernardo Atxaga's *Etiopia, Bitartean heldu eskutik* (2001) [Meanwhile Take My Hand, 2007] by Kirmen Uribe is arguably the most popular book of poetry among Basque readers. The book is structured around seven sections, with the poems in each section concerning a different topic. In this way, the poet reflects on technology, progress or the search for perfection and their harmful effects in contemporary society, and on humanity itself, and argues for a return to essence. As he writes in one of the poems, his goal is to "adapt human beings to the size of the world". The need to adapt human beings to the world leads the poet inevitably to reflect more deeply on personal relationships to arrive at the following conclusion: the word is not the most appropriate, or at least the most effective, medium for communicating one's feelings. For that reason, he emphasises the value of gestures – the value of corporeal communication. In *17 segundo* (2019), he demonstrates a similar subject matter to the previous book of poems.

The book of poems *Azalaren kodea* (2000) by Miren Agur Meabe, which displays a pronounced lyricism, eroticism and sensuality, was well-received by critics. It is a highly personal work. In Meabe's own words, the book provides readers with a "kaleidoscopic x-ray" of the author. Amongst these experiences one might emphasise, as well as the mark the past leaves on the present, those dreams with a pronounced erotic content. The critic Iratxe Gutiérrez sees some connection between this external projection of women's sexual desire and the arguments of Hélène Cixous, given that the author of *Le rise de la Méduse* proposes a writing based on the unconscious and the libido. The work received the Spanish Critics' Prize in 2001. The book of poems *Bitsa eskuetan* (2010) offers common themes in Meabe's work: lack of affection, death, sex and loneliness.

Other poets worth mentioning are Igor Estankona, Jon Gerediaga, Beñat Sarasola, Iñigo Astiz and Hedoi Etxarte.



## Beste hizkuntzetan egindako literatura



Niebla

**Unamuno**

Alianza editorial

Euskara ez beste hizkuntzetan aritu diren Euskal Herriko idazleen atzerabegirako gaztelaniaz idatzi duten horiekin hasiko dugu. Narratibari begira, nabarmentzeoak dira 98ko Belaunaldiko kide izandako Miguel Unamuno eta Pío Baroja.

Nobela, antzerkia eta saiakera landu zituen Miguel Unamunok. Bere lehen eleberria, *Paz en la guerra* (1895), Filosofian doktore-titulua eskuratzeko idatzi zuen tesian (*Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca*) defendaturiko ideietan oinarrituta dago. Hirugarren Karlistaldian oinarritzen zen eleberri hura, baina ez zuen batere zerikusirik

aurreko belaunaldiaren elezaharretako literatura historikoarekin, hala nola Navarro Villosladaren *Amaya o los vascos en el siglo VIII* lanarekin (1879). Jesus Maria Lasagabasterren esanetan, 98ko Belaunaldiko Euskal Herriko idazleen literatura erregionalista «aurreko belaunaldien, hots, Trueba, Campion, Araquistain, Goizueta, Arana eta enparauen foruzaletasunaren eta literatur nazionalismoaren heriotza-agiria izango zen» (2002: 274). Hauek ere idatzi zituen Unamunok: *Niebla* (1914) [Laino, 1998], *Abel Sánchez, una historia de pasión* (1917) [Abel Sanchez, 1992], *Tulio Montalbán* (1920), *San Manuel Bueno, mártir* (1930) eta *Don Sandalio, jugador de ajedrez* (1930).

Pío Baroja nobela jorratu zuen nagusiki, baina saiakera ere landu zuen maiz, baita antzerkia, lirika eta biografia ere. Arthur Schopenhauer-en ezkortasun sakonaren eragina zuen filosofia adierazi zuen bere eleberrietan, baina ekintzaren bidezko berrerosketa aldarrakatu zuen nolabait, Friedrich Nietzsche-ren ildoan: pertsonaia abenturazale eta bizizale ugari ageri dira bere nobela gehienetan, baita pertsonaia gogogabe eta desengainatu batzuk ere, hala nola Andrés Hurtado *El árbol de la ciencia* (1911) [Jakintzaren arbola, 2006] lanean eta Fernando Ossorio *Camino de perfección (pasión mística)* (1902) lanean.

XX. mendeko lehenengo bi hamarkadetan jaiotako egielen artean, aipatzekoak dira Ignacio Aldecoa, Luis Martín Santos, Ramiro Pinilla eta Pablo Antoñana.

Luis Martín Santosek 1962an argitaraturiko *Tiempo de silencio* nobelak iraultza ekarri zuen orduko eleberrigintzara, hainbat berrikuntza estilistiko ezarri baitzituen, besteak beste barne-bakarrizketa, bigarren pertsonaren erabilera, zeharkako estilo librea eta kontzientziaren jarioa. James Joyce-z gerotzik, europar eleberrigileak prozedura horiek lantzen arituak ziren, baina errealsmo sozialarekin batere zerikusirik ez zuten. Horren guztia ondorioz, Martín Santosek berak *errealsmo dialektiko* izendatu zuena sortu zen.

## Basque Literature in Other Languages


We will begin this section on Basque literature in other languages with Spanish. As regards narrative, one must begin with the authors associated with the Generation of 98: Miguel Unamuno and Pío Baroja.

Miguel Unamuno wrote novels, theatrical works and essays. His first novel, *Paz en la guerra* (1895) [Peace in War: A Novel, 1983], is based on some of the ideas in his doctoral thesis in philosophy (*Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca*). In spite of being set during the third Carlist War (which the author experienced first-hand during his childhood), this work has nothing to do with the historical legend literature of the previous generation in, for example, *Amaya o los vascos en el siglo VIII* (1879) by Francisco Navarro Villoslada. According to Jesús María Lasagabaster, regionalist literature by the Basque writers of 98 "was in fact a demonstration of the death of fuerismo and the literary nationalism of previous generations, from Trueba to Campión, via Araquistain, Goizueta and Arana" (2002: 274). Other novels by Unamuno include *Niebla* (1914) [*Mist: a Tragicomic Novel*, 1928], *Abel Sánchez, una historia de pasión* (1917) [*Abel Sánchez, Unabridged Novel*, 1947], *Tulio Montalbán* (1920), *San Manuel Bueno, mártir* (1930) and *Don Sandalio, jugador de ajedrez* (1930).

Pío Baroja preferred the narrative genre, but frequently wrote essays and very occasionally theatrical works, poetry and biographies. His novels reveal a philosophy marked by the deep pessimism of Arthur Schopenhauer, although he preached to some extent a kind of redemption through action along the lines of Friedrich Nietzsche: this is the source of the dynamic adventurer heroes that pervade most of his novels, but also of the scarcer apathetic and disillusioned characters, such as Andrés Hurtado in *El árbol de la ciencia* (1911) [The Tree of Knowledge, 1974] or Fernando Ossorio in *Camino de perfección (pasión mística)* (1902) [Road to Perfection, 2008], two of his best novels.

Amongst the authors belonging to the generation which emerged in the first two decades of the twentieth century, one might mention Ignacio Aldecoa, Luis Martín Santos, Ramiro Pinilla and Pablo Antoñana.

The novel *Tiempo de silencio* (1962) [Time of Silence, 1964] by Luis Martín Santos implied a revolution in the world of novel-writing at the time. It introduced several new stylistic elements such as the internal monologue, the use of the second person, free indirect speech and stream of consciousness – all narrative techniques which had been present in European novels since the time of James Joyce but which were absent in the fashionable social realism of the era. All this went to make up what Martín Santos himself classified as "dialectic realism".



Ignacio Aldecoa poesia idazten hasi zen, baina narrazioaren alde egin zuen berehala. Genero horretan, hain zuen, nabarmendu zen egilea. Hainbat narrazio bilduma atondu zituen, eta, horien artean, aipatzekoak dira hauek: *Espera de tercera clase* (1955), *Vísperas del silencio* (1955), *El corazón y otros frutos amargos* (1959), *Caballo de pica* (1961), *Arqueología* (1961), *Cuaderno de Godo* (1961), *Neutral corner* (1962) eta *Pájaros y espantapájaros* (1963). Aldecoaren narrazioak joera neorrealistaren barruan kokatzen dira, eta behartsuen eta babesgabeen mundua azaltzen dute.

Ramiro Pinilla 1960an hasi zen literatur munduan ezagun bihurtzen, *Las ciegas hormigas* lanari esker Nadal saria eskuratu ostean. 2005ean *Verdes valles, colinas rojas* trilogia idazteari ekin zion. *La tierra convulsa*, *Los cuerpos desnudos* eta *Las cenizas del hierro* lanek osatzen dute trilogia, eta Euskal Herriaren eta abertzalesunaren azkenaldiko historiaren irudi handinahia eskaintzen dute. 2005ean, Euskadi saria irabazi zuen Pinillak, *La tierra convulsa* lanari esker, eta 2006an, Spainiako Narratiba Saria, *Las cenizas del hierro* lanari esker.

1930eko eta 1940ko hamarkadetan jaiotako egileen artean, aipatzekoak dira Raúl Guerra Garrido, Jorge González Aranguren, Ángel García Ronda, Germán Sánchez Espeso, Rafael Castellano de la Puente, J.J. Rapha Bilbao, Manuel Blanco Chivite eta Toti Martínez de Lezea.

Raúl Guerra Garrido 1969an idatzi zuen lehen eleberria, *Ni héroe ni nada*, eta, ordutik, hogei bat lan argitaratu ditu. 1976an, Nadal saria irabazi zuen *Lectura insólita de El Capital* lanarekin eta 1984an, berriz, Planeta sarirako finalista izan zen *El año del Wolfram* lanari esker. 1987an *La*



**26.** Ramiro Pinilla.  
**27.** Luisa Etxenike.

**26.** Ramiro Pinilla.  
**27.** Luisa Etxenike.



27

Ignacio Aldecoa began writing poetry, but soon decided on narrative, a genre in which he excelled especially for his narrations. He authored several collections of short stories, including *Espera de tercera clase* (1955), *Vísperas del silencio* (1955), *El corazón y otros frutos amargos* (1959), *Caballo de pica* (1961), *Arqueología* (1961), *Cuaderno de Godo* (1961), *Neutral corner* (1962) and *Pájaros y espantapájaros* (1963). His narrative work forms part of the neorealist movement, and describes the world of the disadvantaged and helpless.

Ramiro Pinilla began to make a name for himself in the literary world after winning the Nadal Prize in 1960 for *Las ciegas hormigas*. In 2005 he began to publish the trilogy *Verdes valles, colinas rojas*, made up of the works *La tierra convulsa*, *Los cuerpos desnudos* and *Las cenizas del hierro*, an ambitious fresco on the contemporary history of the Basque Country and nationalism, as well as being a shrewd portrait of Getxo in Biscay, his home town. Pinilla won the Euskadi Prize for Literature for *La tierra convulsa* in 2005, and in 2006 he received the Spanish National Prize for Narrative for *Las cenizas del hierro*.

Amongst those authors born in the 1930s and 1940s we might mention Raúl Guerra Garrido, Jorge González Aranguren, Ángel García Ronda, Germán Sánchez Espeso, Rafael Castellano de la Puente, J. J. Rapha Bilbao, Manuel Blanco Chivite and Toti Martínez de Lezea.

Raúl Guerra Garrido wrote his first novel, *Ni héroe ni nada*, in 1969 and since then has published around twenty other works. He won the Nadal Prize in 1976 for *Lectura insólita de El Capital* and was a finalist in the Planeta Prize of 1984 for *El año del Wolfram*. In 1987 he published *La mar es una mala mujer*, which according to critics was his most complete work to date, and which was later made into a film, *Terranova*. This work tells the story of the struggle of a character, Antxon, against time. Terrorist violence is one of his major subjects, as explored in *La carta* (1990) and the more recent *La soledad del ángel del guarda* (2007), a psychological portrayal of a man who becomes the shadow of a professor threatened by terrorism and for which he received the National Prize of Spanish Letters in 2006.


*mar es una mala mujer* kaleratu zuen. Kritikarien ustez, horixe da Guerra Garridoren lanik osoena, *Terranova* izenburuaz zinemararatutakoa; Antxonek denboraren aurka egiten duen borroka azaltzen du lanak, eta indarkeria terrorista du gai nagusietako bat. *La carta* (1990) eta *La soledad del ángel del guarda* (2007) lanek ere gai horretan sakontzen dute. *La soledad del ángel del guarda* nobelak mehatxaturiko irakasle baten itzal bihurtzen den gizon baten erretratu psikologikoa eskaintzen du, eta Espaniako Letren Saria eskuratu zuen 2006an.

1950eko hamarkadan sortutako egileen artean, nabarmentzeakoak dira Miguel Sánchez-Ostiz, Antonio Altarriba, Miguel González San Martín, Paloma Díaz-Mas, Luisa Etxenike, José Javier Abásolo, Fernando Marías, Álvaro Bermejo, Fernando Aramburu eta Juan Bas.

Luisa Etxenikek *La historia de amor de Margarita Maura* narrazio bilduma (1990) eta *Querida Teresa* (1988), *Efectos secundarios* (1996), *El mal más grave* (1997), *Los peces negros* (2005) eta *Ejercicios de duelo* (2010) eleberriak argitaratu ditu, besteren artean. 2008an, *El ángulo ciego* kaleratu zuen; laneko protagonistaren aita bizkartzaina da ofizioz eta ETAK hil du.

Fernando Aramburu *Fuegos con limón* lanari esker egin zen ezagun, 1996an. Idazle-belaunaldi baten kronika da *Fuegos con limón*, eta Donostian girotuta dago, 1970eko hamarkadan. Ondotik, hainbat eleberri argitaratu ditu Aramburuk: Euskadi Literatura Saria jasotako *Los ojos vacíos* (2000), *El trompetista de Utopía* (2003), *Vida de un piojo llamado Matías* (2004) eta *Bami sin sombra* (2005). 2006an, *Los peces de la amargura* narrazioen liburua plazaratu zuen: ETAren biktimengan jartzen du arreta lanak, eta, hari esker, 2007ko Dulce Chacón Espaniako Narratiba Saria eta Espaniako Errege Akademiaren 2008ko Saria eskuratu zituen Aramburuk. *Patria* (2016) nobelarekin, berriz, Espaniako Sari Nazionala jaso zuen.

1960ko eta 1970eko hamarkadetan jaiotako egileen artean, aipatzekoak dira: Pedro Ugarte, Juan Manuel de Prada, María Laura Espido Freire, Ander Izagirre eta Txani Rodríguez.



Pedro Ugartek hainbat narrazio bilduma kaleratu ditu: *Los traficantes de palabras* (1990), *Noticias de tierras improbables* (1992), *Manual para extranjeros* (1993), *La isla de Komodo* (1996) eta *Materiales para una expedición* (2003). Bere lehenengo eleberria, *Los cuerpos de las nadadoras* (1996), Herralde sarirako finalista izan zen, eta gaztelaniazko Euskadi literatura saria eskuratu zuen 1997an.

25 urte zituela, 1999an, Espido Freirek Planeta saria irabazi zuen, *Melocotones helados* lanari esker, eta sari hori irabazi duen egilerik gazteena izan zen. Pintore gazte bat da lan horren protagonista, ezezagun baten heriotza-mehatxuak hartu ostean etxetik alde egin eta aitonaren etxera doana bizitzera. Aurrez, beste bi eleberri argitaratu zituen Espido Freirek: *Irlanda* (1998) —Frantziako Millepage saria— eta *Donde siempre es octubre* (1999). Liburu hauek ere idatzi ditu: *Diabulus in Musica* (2001),

Amongst those authors born in the 1950s one might mention Miguel Sánchez-Ostiz, Antonio Altarriba, Miguel González San Martín, Paloma Díaz-Mas, Luisa Etxenike, José Javier Abásolo, Fernando Marías, Álvaro Bermejo, Fernando Aramburu and Juan Bas.

Luisa Etxenike has published one book of short stories, *La historia de amor de Margarita Maura* (1990) and the novels *Querida Teresa* (1988), *Efectos secundarios* (1996), *El mal más grave* (1997), *Los peces negros* (2005) eta *Ejercicios de duelo* (2010). In 2008 she published *El ángulo ciego*, in which the young protagonist's father, a bodyguard by profession, has been killed by ETA.

Fernando Aramburu rose to fame with *Fuegos con limón* (1996), the chronicle of a generation of writers in San Sebastian in the 1970s. Thereafter, he published the novels *Los ojos vacíos* (2000), which won the Euskadi Prize for Literature, *El trompetista de Utopía* (2003), *Vida de un piojo llamado Matías* (2004) and *Bami sin sombra* (2005). In 2006 he published a book of short stories, *Los peces de la amargura*, focusing on the victims of ETA, for which he won the Dulce Chacón for Spanish Narrative in 2007 and the Spanish Royal Academy Prize in 2008. He was awarded the Spanish National Prize for the novel *Patria* (2016) [*Homeland*, 2019].

Among the authors born in the 1960s and 1970s one might mention Pedro Ugarte, Juan Manuel de Prada, María Laura Espido Freire, Ander Izagirre and Txani Rodríguez. Pedro Ugarte has published several books of short stories: *Los traficantes de palabras* (1990), *Noticias de tierras improbables* (1992), *Manual para extranjeros* (1993), *La isla de Komodo* (1996) and *Materiales para una expedición* (2003). His first novel, *Los cuerpos de las nadadoras* (1996), was a finalist for the Herralde Prize and won the Euskadi Prize for Literature in 1997.

Espido Freire won the Planeta Prize at the age of twenty-five in 1999 for *Melocotones helados*, becoming the youngest ever author to receive the award. The protagonist of the novel is a young painter who, after leaving her home after receiving threats from an unknown source, goes to live with her grandfather. Previously, Freire had published two other novels: *Irlanda* (1998), published in English in 2011, for which she won the French Millepage prize, and *Donde siempre es octubre* (1999). Her other works include *Diabulus in Musica* (2001), *Nos espera la noche* (2003), *La diosa del pubis azul* (2005) and *Soria Moria* (2007). Her work in general addresses the ambiguity of appearances, social values based on being good and a fascination with evil, by means of magical worlds as well as everyday life, creating extremely complex universes and non-existent times.

As regards poetry, the following names stand out from the first half of the twentieth century: Ernestina de Champourcín and the so called triumvirate of social poetry: Ángela Figuera Aymerich, Gabriel Celaya and Blas de Otero.



*Nos espera la noche* (2003), *La diosa del pubis azul* (2005) eta *Soria Moria* (2007). Itxuraren anbiguotasuna, gizartearren balioen araberako ongia eta gaizkiaren liluragarritasuna lantzen ditu Espido Freireren obrak, bai mundu magikoetan, bai eguneroko bizitzan, eta, horretarako, oso unibertsoko konplexuak eta existitu ez diren garaia darabiltza.

Poesian, XX. lehen erdialdean ondoko egileak nabarmendu ziren: Ernestina de Champourcín eta poesia sozialaren euskal triunbiratu delakoa: Ángela Figuera Aymerich, Gabriel Celaya eta Blas de Otero.

Ernestina de Champourcín 27ko Belaunaldiko kide izan zen, eta poesia intimista jorratu zuen hiru fasetan: lehen fasean, 1905 eta 1936 artean, giza maitasunaren poesia; bigarrenean, 1936 eta 1974 artean, jainkozko maitasunaren poesia; eta, hirugarrenean, 1974 eta 1991 artean, maitasun sentituarena landu zuen. Bere lanen artean aipatzekoak dira *En silencio* (1926), *Ahora* (1928), *La voz en el viento* (1931), *Cántico inútil* (1936), *Presencia a oscuras* (1952), *Cárcel de los sentidos* (1960) eta *Primer exilio* (1978).

Ángela Figuera Aymerichek joera modernistako poesia landu zuen, emakumetasuna eta amatasuna ospatu eta emakumeen eta haurren kontrako gehiegikeriak salatzeko. Bere lehen liburua *Mujer de barro* 1948an argitaratu zuen eta, ondotik, *Soria pura* (1949), *Vencida por el ángel* (1950), *Víspera de la vida* (1953), *Los días duros* (1953), *Belleza cruel* (1958) eta *Toco la tierra* (1962) plazaratu zituen. Azken biek arreta handiagoa jartzen dute gizarte gaietan, eta sufritzen ari den gizakiaren aldeko jarrera sutsua adierazten dute.

Gabriel Celaya poeta aipagarria izan zen poesia konprometitua delakoaren barnean. Poesia existencialista landu zuen lehen etapan. 1950eko hamarkadan, konpromisoaren estetikarekin bat egin zuen, eta horren frutu dira *Lo demás es silencio* (1952) eta *Cantos íberos* (1955) poema liburuak. Halaber, esperimentalismoa eta poesia konkretua landu zituen *Campos semánticos* (1971) lanean. 1986an, Spainiako Letren Saria eman zioten.

Blas de Oteroren ibilbidea hiru etapatan sailka dezakegu, poetak izan zituen hiru krisialdien arabera: etapa espirituala (*Cántico espiritual*, 1942), etapa existencialista (*Ángel fieramente humano*, 1950 eta *Redoble de conciencia*, 1951) eta etapa soziala (*Pido la paz y la palabra*, 1955).

Gerraostean jaiotako poeten artean, aipagarriak dira: Juan Ramón Corpas, Eduardo Apodaca, Julia Otxoa, Francisco Javier Irazoki, Iñaki Ezkerra, Karmelo C. Iribarren, José Fernández de la Sota, Kepa Murua, Javier Alcibar, María Maizkurrena, Amalia Iglesias Serna, Eli Tolaretxipi eta José Blanco.

Julia Otxoa sortzaile aldakorra da eta poesia, arte plastikoak, haurrentzako kontaketa, mikroipuin edo mikrotestua, eta poesia bisuala landu ditu hasiera-hasieratik, saiakeraz eta egunkarietako artikuluez gain. 1978an argitaratu zuen lehen liburua, *Composición*



28. Karmelo C. Iribarren.


Ernestina de Champourcín belonged to the Generation of 27 and created an intimate poetry which can be divided into three phases: the poetry of human love (1905–1936), the poetry of divine love (1936–1974) and the poetry of heartfelt love (1974–1991). Her books of poems include *En silencio* (1926), *Ahora* (1928), *La voz en el viento* (1931), *Cántico inútil* (1936), *Presencia a oscuras* (1952), *Cárcel de los sentidos* (1960) and *Primer exilio* (1978).

The poetry of Ángela Figuera Aymerich is modernist in style, and celebrates femininity and maternity, while at the same time condemning the abuse of women and children. Her first book was *Mujer de barro* (1948), and this was followed by *Soria pura* (1949), *Vencida por el ángel* (1950), *Víspera de la vida* (1953), *Los días duros* (1953), *Belleza cruel* (1958) and *Toco la tierra* (1962). These last two works demonstrate a growing interest in social questions and a radical position in favour of those humans who experience suffering.

Gabriel Celaya was one of the represented figures of the so-called committed poetry. His initial work was characterised by an existentialist tone. In the 1950s he joined the aesthetic of commitment, resulting in the poetry books *Lo demás es silencio* (1952) and *Cantos íberos* (1955). He also played with experimentalism and concrete poetry in *Campos semánticos* (1971). He was awarded the National Prize for Spanish Letters in 1986.

The career of Blas de Otero might be classified in three stages, all coming as the result of three crises the poet himself experienced: a spiritual stage (*Cántico espiritual*, 1942), an existential stage (*Ángel fieramente humano*, 1950 and *Redoble de conciencia*, 1951), and a social stage (*Pido la paz y la palabra*).

Amongst the authors born after the Spanish Civil War, one might mention: Juan Ramón Corpas, Eduardo Apodaca, Julia Otxoa, Francisco



28. Karmelo C. Iribarren.

entre la luz y la sombra. Hasieratik, gerra aurreko eta gerraosteko poeta existencialisten eta konprometituen (Antonio Machado, Federico García Lorca, Miguel Hernández, Blas de Otero, Ángela Figuera) eragin handia duen poesia landu du, baita isiltasunaren poesiatik hurbil dagoen poesia minimalistak ere, prosa poetikoranzko eta aforismoranzko joera duten poemek osatutakoa. Hainbat liburu argitaratu ditu Otxoak, eta, horien artean, nabarmentzeko da *Taxus baccata* (2005).


Saiakerari dagokionez, azpimarratzekoak dira hauek: Ramiro de Maeztu, Jorge Oteiza, Elías Amézaga, José María Jimeno Jurio, Manuel Leguineche, Fernando Savater, Jon Juaristi eta Daniel Innerarity.

Frantsesez idazten duten egileen artean, Marie Darrieussecq da zalantzarik gabe arrakasta gehien lortu duena. Emakumezko pertsonaiak, bikote-harremanak eta amaren eta seme-alaben arteko harremanak dira nagusi bere lanetan, eta desagerpenez, absentzia, mamuez eta oroinmena galtzeaz dihardu maiz. Nortasun eta kidetasun kontuak ere etengabeak dira bere obran. Besteak beste, lan hauek argitaratu ditu: *Truismes* (1996) [Ahardikeriak, 2005], *Naissance des fantômes* (1998), *Le mal de mer* (1999), *Précisions sur les vagues* (1999), *La plage* (2000), *Bref séjour chez les vivants* (2001), *Le bébé* (2002), *White* (2003), *Le pays* (2005) [Herria, 2005], *Zoo* (2006), *Tom est mort* (2007) [Tom hil da, 2007], *Tristes pontiques* (2008) nobelak eta *Le musée de la mer* (2009) antzezlana.

Azken bi mendeetan, AEBetan bizi diren euskal jatorrikoen kopuruak nabarmen egin du gora, eta euskal-amerikarren bigarren, hirugarren eta laugarren belaunaldiko autoreak aipatuko ditugu guk: Miriam Isasi, Robert Laxalt, Frank Bidart, Frank Bergon, Monique Laxalt, Trisha Zubizarreta, Gregory Martin, Martin Etchart eta Gabriel Urza.

Robert Laxalt, zalantzarik gabe, idazle euskal-amerikarrik ezagunena da. *Sweet Promised Land* (1957) [Dominique, artzain xiberotar bat Nevadan, 1988 / Aita artzain zen, 2005] AEBetan bizi zen euskal erkidegoaren ordezkaritza gain, diasporaren errealitatea helarazi zien Europaren bizi ziren euskal herritarrei, euskal herriko gaztelaniazko eta frantseseko itzulpenei esker. Urte askoren buruan jaioterrira itzultzen den emigratzailearen esperientziaren lekuko leialtzat hartu izan dute lan hori, eta azaltzen du zer sentipen izan zituen

Laxaltek berak Dominique aitarekin batera Euskal Herriko egin zuen lehen bidaian. Nolanahi ere, ezin esan dezakegu *Sweet Promised Land* lana emigrante asimilatuaren lekukotasuna denik, Dominiquek Euskal Herriaren gara sentitzen duen arroztasuna inoiz bere etxe berriaren gara (AEBengana) sentitzen duenarekin pareka baitaiteke. Laxaltek dioenez, artzaina zuen aita, eta mendia zen haren etxea. Muga da mendia, esekiduran dagoen toki bat, hirugarren lekua agian; mugatu eta, aldi berean, batu egiten du. Bi kulturaren artean dago Dominique; batak



29. Marie Darrieussecq.



Javier Irazoki, Iñaki Ezkerra, Karmelo C. Iribarren, José Fernández de la Sota, Kepa Murua, Sergio Arroeta, Javier Alcibar, María Maizkurrena, Amalia Iglesias Serna, Eli Tolaretxipi and José Blanco.

Julia Otxoa is a versatile artist who, since the beginning of her career, has written poetry and practiced the plastic arts, as well as also writing children's stories, microfiction and visual poetry (and also essays and newspaper columns). Her first book, *Composición entre la luz y la sombra*, was published in 1978. From the beginning, her poetry has been influenced greatly by existentialists and the committed poets of the pre- and post-Spanish Civil War era (for example, Antonio Machado, Federico García Lorca, Miguel Hernández, Blas de Otero and Ángela Figuera). It is also a minimalist poetry close to that of silence, where the poem tends toward a form of poetic prose and aphorism. Amongst her fourteen books published to date, one might highlight *Taxus Baccata* (2005).

As regards the essay, the following authors stand out: Ramiro de Maeztu, Jorge Oteiza, Elías Amézaga, José María Jimeno Jurio, Manuel Leguineche, Fernando Savater, Joseba Zulaika, Jon Juaristi and Daniel Innerarity.

Amongst Basque authors who write in French, Marie Darrieussecq is, without doubt, the most successful. She prioritises female characters and the relationships between both couples and mothers and daughters in her work. Recurring themes include disappearances, absence, ghosts and memory loss. Questions of identity and belonging are also constant topics in her work. To date, she has published the following titles: *Truismes* (1996) [*Pig Tales: A Novel of Lust and Transformation*, 1997], *Naissance des fantômes* (1998) [*My Phantom Husband*, 1999], *Le mal de mer* (1999) [*Breathing Underwater* (UK) / *Undercurrents: A Novel* (USA), 2001], *Précisions sur les vagues* (1999), *La Plage* (2000), *Bref séjour chez les vivants* (2001) [*A Brief Stay With the Living*, 2003], *Le bébé* (2002), *White* (2003) published in English in 2005, *Le pays* (2005), *Zoo* (2006), *Tom est mort* (2007), *Tristes Pontiques* (2008) and the theatrical work *Le Musée de la mer* (2009).

In the last two centuries, the number of inhabitants of Basque origin in the United States of America has been increasing. Below we cite a list of authors belonging to the second and third generations of Basque-

bestearekin zerikusirik ez duten baina, aldi berean, bere baitan bat egiten duten bi mundurenen artean. Bere errealityea plurala da orain –egiaz, zer errealityez da plurala?–, eta, beraz, ez du onartzen singularra balitz bezala trata dezaten; hau da, ez du nahi bere iraganaren edo, zehazkiago esanda, bere iragan jakin baten arabera defini dezaten. *Sweet Promised Land* lanaren ondotik, AEBen mendebaldera emigratutako euskal familia baten esperientziei buruzko trilogia bat argitaratu zuen Laxaltek; familia horretako kide Pete Indart da kontalaria, eta liburu hauek hartzen ditu barnean: *The Basque Hotel* (1989), *Child of the Holy Ghost* (1992) eta *The Governor's Mansion* (1994).

American authors: Miriam Isasi, Robert Laxalt, Frank Bidart, Frank Bergon, Monique Laxalt, Trisha Zubizarreta, Gregory Martin, Martin Etchart and Gabriel Urza.

Robert Laxalt was, without doubt, the best known Basque-American author on both sides of the Atlantic Ocean. *Sweet Promised Land* (1957) not only gave a voice to the Basque community in the United States but also, by means of translations into Euskara, Spanish and French, allowed Basques in Europe a window on the reality of the Basque diaspora there. *Sweet Promised Land*, which has been described as faithful rendition of the experience of the emigrant who returns home to his birthplace after many years away, is a record of Laxalt's own impressions on his first visit to the Basque Country in the company of his father, Dominique. Whatever the case, one cannot say that *Sweet Promised Land* is the testimony of an assimilated immigrant. The strangeness Dominique feels for the Basque Country is matched by the strangeness he continues to feel on occasion in his new home, the United States. In perhaps the most cited part of the work, the beginning, Laxalt tells us his father was a sheepherder and that his home was the hills. Mountains are a frontier land, a suspended place, a third place if one prefers; they divide but, at the same time, they also unite. Dominique finds himself between two cultures, two worlds that have nothing in common with one another, and yet they come together in him. His is now a plural reality (although what reality isn't?) which is why he cannot be defined in the singular. This is why he resists only being defined by his past or, to put it another way, by a specific past. Later, Laxalt published a trilogy based on the experiences of a Basque family that had emigrated to the American West as told by one of its members, Pete Indart, and made up of: *The Basque Hotel* (1989), *Child of the Holy Ghost* (1992) and *The Governor's Mansion* (1994).

# Bibliografia

## Bibliography

- Aldekoa, Iñaki (2004): *Historia de la Literatura Vasca*. Donostia: Erein.
- Chueca, Josu (2000): «Introducción histórica» in *Historia de la Literatura Vasca*. Ed. Patricio Urquiza. Madrid: UNED. 391-401.
- Ezkerra, Estibalitz (2013): "Other Basque Literatures" in *Basque Literary History*. Ed. Maria Jose Olaziregi. Reno: Center for Basque Studies. 329-350.
- Gabilondo, Joseba (2006): *Nazioaren hondarrak. Euskal Literatura Garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*. Bilbo: EHU.
- González-Allende, Iker (2007): «Género y Nación en la Narrativa Vasca durante la Guerra Civil española (1936-1939)». Tesis doctoral, University of Illinois at Urbana-Champaign.
- Lasagabaster, Jesús María (2002): *Las literaturas de los vascos*. Donostia / San Sebastián: Universidad de Deusto.
  - (1985): «Literatura y vida literaria» in *Euskal Herria. Errealitate eta Egitasmo. Realidad y Proyecto I*. Ed. Joseba Intxausti. Donostia / San Sebastián: Caja Laboral. 427-433.
  - (1981): «Euskal nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak» in *Euskal Linguistika eta Literatura: Bide Berriak*. Ed. Antonio Tovar et alii. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. 343-368.
- Madariaga, Juan (2006): *Anthology of Apologists and Detractors of the Basque Language*. Reno: Center for Basque Studies-University of Nevada.
- Mitxelena, Koldo (1988): *Historia de la literatura vasca*. 1960. Donostia: Erein.
- Nuñez Betelu, Maite (2001): «Género y construcción nacional en las escritoras vascas». Tesis doctoral. University of Missouri, St. Louis.
- Olaziregi, Maria Jose (2013): "Worlds of Fiction: An Introduction to Basque Narrative" in *Basque Literary History*. Ed. Maria Jose Olaziregi. Reno: Center for Basque Studies. 137-200.
  - (2009): "Is There a Return of the Real in Postmodern Fiction?" in *Cultural and Media Studies: Basque / European Perspectives*. Ed. M. P. Rodríguez. Reno: Center for Basque Studies-University of Nevada. 53-80.
  - (1999): *Intimismoaz haraindi. Emakumezkoek idatzitako euskal literatura*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Olaziregi, Maria Jose; Otaegi, Lourdes (2011): «La representacion del bombardeo de Gernika en la literatura vasca» in RIEV 8. 40-61.
- Otaegi, Lourdes (2013): "Modern Basque Poetry" in *Basque Literary History*. Ed. Mari Jose Olaziregi. Reno: Center for Basque Studies. 201-244.
- Walton, Priscila L., eta Manina Jones (1999): *Detective Agency. Women Rewriting the Hard-Boiled Tradition*. Berkeley: University of California Press.
- White, Linda (1996): "Emakumeen Hitzak Euskaraz: Basque Women Writers of the Twentieth Century". Diss. University of Nevada, Reno.
- Zavala, Iris M., ed. (2000): *Breve historia feminista de la literatura española* (escrita en lengua catalana, gallega y vasca). Barcelona: Anthropos.



## Estibalitz Ezkerra Vegas (Bilbo, Bizkaia, 1979)

Estibalitz Ezkerra Vegas ACLS Emerging Voices posdoktorego ikertzalea da Arizona State Universityko Historia, Filosofia eta Erlilio Ikasketen Eskolan. Literatura konparatuan doktorego ikasketak egin zituen Illinoisko Unibertsitatean, Urbana-Champaignen, eta ingelesezko masterra Nevadako Unibertsitatean, Reno. Indarkeria politikoaren eta memoriaren alorrean lan egiten du, batik bat kultur ekoizpenean duten eraginari begira, eta immigrazio kontuetan ere interesa du. Euskal Herriko idatzizko prentsan ohiko kolaboratzailea da.

Estibalitz Ezkerra Vegas is an ACLS Emerging Voices postdoctoral researcher at the Arizona State University School of Historical, Philosophical and Religious Studies. She holds a doctorate in comparative literature from the University of Illinois, Urbana-Champaign and a master's in English literature from the University of Nevada, Reno. She works in the field of political violence and memory and the effect they have on cultural production, and is also interested in immigration issues. She is a regular contributor to the written press in the Basque Country.

## KREDITUAK / CREDITS

**Euskal Kultura sailaren edizioa**  
**A publication in the Basque Culture series**  
Etxepare Euskal Institutua

**Testua / Text**  
Estibalitz Ezkerra Vegas CC BY-NC-ND

**Ingelesezko itzulpena**  
**Translation into English**  
Cameron Watson

**Edizioa / Edition**  
Miriam Luki Albisua

**Maketazioa / Layout**  
Infotres

**Diseinua / Design**  
Mito.eus

**Azaleko argazkia / Cover Photo**  
Bizkaiko Foru Liburutegia / The Regional Library of Bizkaia – Julen Altube Zigaran

**Argitalpen urtea / Publication Year**  
2023

## Argazkiak / Photos


1. Polikarpo Elosegi – Gure Gipuzkoa CC BY-SA 4.0
2. Nagore Txintxurreta CC BY-SA 4.0
3. Gerediaga Elkartea / Gerediaga Association
4. Gerediaga Elkartea / Gerediaga Association
5. Badok.info CC BY 3.0
6. Julen Altube Zigaran
7. Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao / Azkuna Centre – Alhóndiga Bilbao
8. Etxepare Euskal Institutua / Etxepare Basque Institute.
9. Hea Kultura Elkartea / Hea Cultural Association
10. Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao / Azkuna Centre – Alhóndiga Bilbao
11. Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao / Azkuna Centre – Alhóndiga Bilbao
12. Laura Mintegi
13. © Erein argitaletxea / © Erein publishing house
14. Gerediaga Elkartea / Gerediaga Association
15. Gerediaga Elkartea / Gerediaga Association
16. Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao / Azkuna Centre – Alhóndiga Bilbao
17. Gerediaga Elkartea / Gerediaga Association
18. Gerediaga Elkartea / Gerediaga Association
19. Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao / Azkuna Centre – Alhóndiga Bilbao
20. Pilar G. Barco
21. Gerediaga Elkartea / Gerediaga Association
22. Jose Goiti
23. © Elkar Argitaletxeak SL / © Elkar Publishing House Ltd.
24. Goierriko Hitza
25. Luis Zatika
26. Mitxel Atrio CC BY-SA 4.0
27. Luisa Etxenikeren Artxiboa / Personal archive of Luisa Etxenike
28. Cordwainer CC BY-SA 3.0
29. Laukitik – Euskal Kultura Erakunde / Laukitik – Basque Cultural Institute
30. Estibalitz Ezkerra Vegas

## **Etxepare Euskal Institutua**

Etxepare Euskal Institutua erakunde publiko bat da. Gure helburua nazioartean euskara, euskal kultura eta sorkuntza sustatzea eta ezagutzera ematea da, eta, horien esku, beste herrialdeekin eta kulturekin harreman iraunkorrik eraikitza. Horretarako kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditugu, eta sortzaile, artista nahiz kultura-sektoreetako profesionalen mugikortasuna errazten dugu, baita euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntza ere. Halaber, nazioarteko eragile kulturalekin eta akademikoekin elkarlana bultzatzen dugu. Zeregin horietan guztietaan Euskadiko kanpo ordezkaritzak gertuko bidelagun ditugu.

## **Etxepare Basque Institute**

The Etxepare Basque Institute is a public agency dedicated to promoting Basque language, culture and creative talent internationally, and to building lasting relationships with other countries and cultures in these areas. To this end, we foster quality artistic activities and support the mobility of artists and cultural industry professionals, as well as teaching Basque language and culture. We also encourage collaboration with international stakeholders in both the cultural and academic fields, working closely with the official Basque delegations abroad.





BASQUECULTURE.EUS  
THE GATEWAY  
TO BASQUE CREATIVITY  
AND CULTURE

# BASQUE.

Europarrok kultura-ondare oparoa partekatzen dugu, mendeetan zehar izan ditugun trukeen eta migrazio-fluxuen ondorioa dena. Hala, bertako hizkuntzen eta kulturen aniztasuna, berezi egiten gaituen horri esker guztiok joritua, Europak duen balio handienetako bat da. BASQUE. Iurrealde baten isla da (euskararen lurraldarena), historia baten isla, mundua ulertzeko modu batena, gurea. Bere sustraietz harro dagoen kultura baten adierazpidea da, ikuspegi berri bat eskaintzeko tradizioa eta abangoardia uztartzen jakin duen kultura batena. BASQUE. euskal kultura eta sorkuntza garaikideari begiratzeko leihoa da. Musikaren, dantzaren, antzerkiaren, zinemaren, literaturaren, artearen eta beste adierazpide batzuen bidez euskal kultura eta euskara ezagutzera emateko leihoa. Eta, era berean, sormenari zabalik dagoen leku bat da, partekatzeko, zubiak eraikitzea eta solaserako, kulturen artean elkar aditzen lagunduko diguten elkarritzeta berriei bide emateko.

Europeans share a rich cultural heritage from centuries of trade and migration. Linguistic and cultural diversity is one of Europe's main assets, each of us contributing with our uniqueness. BASQUE. is a window into a land (the land of the Basque language, Euskara), a history, a way of seeing the world. It is the expression of a culture proud of its heritage, a people that have learned to embrace difference to create a new vision for tomorrow. BASQUE. opens a new door to Basque culture and contemporary creation through music, dance, theatre, cinema, literature, art... and the Basque language. It is a place open to creativity, to sharing ideas, building bridges, sparking new conversation, and fostering dialogue between cultures.

**EUSKADI**  
BASQUE COUNTRY



ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA